



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 15a

27 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

—“Immigrazioa Nafarroako Erriberan” izeneko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina  
(2. or.).

**G Saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**“Inmigrazioa Nafarroako Erriberan” izeneko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko abenduaren 17an egindako bileran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egindako “Inmigrazioa Nafarroako Erriberan” izeneko txosten berezia, 2001eko abenduaren 11koa, hona ERABAKIA:

1. Aipatu txostenaren edukiaz jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2001eko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**“Inmigrazioa Nafarroako Erriberan” izeneko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren Bulegoak egina**

**AURKIBIDEA**

Txostenaren datu teknikoak . . . . .	2. orrialdea
Sarrera . . . . .	4. orrialdea
Joera . . . . .	4. orrialdea
Erriberako immigrazioa eta bere eragin-eremua . . . . .	10. orrialdea
Etxebizitza . . . . .	26. orrialdea

**TXOSTENAREN DATU TEKNIKOAK**

**ELKARRIZKETAK**

Nafarroako Arartekoaren Bulegoak prestatuturiko txostena, honako entitate publiko eta erakundeen laguntzaz egina:

**AZTERKETA OROKORRA**

- Gizarte Ekimeneko Entitateak

- ANAFE, CC.OO.
- UGT. Iruñeko Gida Zentroa.  
(Iruña, uztailaren 3a)
- UGT. Tuterako Gida Zentroa  
(Tutera, uztailaren 20a)
  - Udalak
- Milagro, Cadreita, Azagra, Funes eta Azkoien
- Tuterak ez zuen parte hartu  
(Milagro, uztailaren 23a)
- Mendabia  
(Mendabia, urriaren 10a)
  - Beste erakunde batzuk:
- Erriberako EDER partzuergoa  
(Milagro, uztailaren 23a)
- Milagro, Cadreita, Valtierra, Arguedas eta Villafrancako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea  
(Cadreita, uztailaren 30a)

**SASOIKAKO LANGILEAK**

- Lanbide-erakundeak eta sindikatuak
- UAGN, CC.OO., UGT  
(Iruña, uztailaren 27a)
  - Gizarte ekimeneko entitateak
- Nafarroako Elizbarrutiko Cáritas
- Gurutze Gorria

**ETXEBIZITZA**

- Lanbide-erakundeak eta sindikatuak
- ANAFE, CC.OO.
- UGT. Gida Zentroa
- UAGN
  - Gizarte ekimeneko entitateak
- ANAFE, CC.OO.

- Nafarroako Elizbarrutiko Cáritas
- Gurutze Gorria
- UGT. Gida Zentroa (Iruña, uztailaren 27a)
  - Udalak
- Milagro, Cadreita, Azagra, Funes eta Azkoien.
- Tuterak ez zuen parte hartu (Milagro, uztailaren 23a)
- Mendabia (Mendabia, urriaren 10a)
  - Beste erakunde batzuk:
- Milagro, Cadreita, Valtierra, Arguedas eta Villafrancako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (Cadreita, uztailaren 30)

#### AZTERTURIKO DOKUMENTUAK ETA ERREFERENTZIAKOAK

##### ESKATUAK ETA JASOAK

- “Europar Batasunaz kanpoko etorkinak Nafarroan. 2000” txostena. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. 2001eko martxoa.
- “Etorkinak Nafarroan gizarteratzeko plana: proposaturiko neurriak”. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. 2001eko martxoa.
- Etorkinak gizarteratzeko planerako proiektua. Nafarroako Gobernuak. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua. 2001eko ekaina.
- Etorkinak gizarteratzeko plana. Espainiako Gobernuak Ministro Kontseilua eta Gizarte Gaierako Ministerioa. 1994ko martxoa.
- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala. V. Legegintzaldia. Parlamentu-galderak eta Nafarroako Gobernuaren erantzunak, honako hauei buruzkoak:
  - Etorkinen lan-baldintzak (95. NPAO, 2001eko irailaren 28koa)
  - Gizarte Ongizate Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketak (95. NPAO, 2001eko irailaren 28koa)
  - Lan Departamentuak etorkinei gizarte laguntza emateko egindako jarduketak. (103. NPAO, 2001eko urriaren 16koa)
  - Gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzea. (104. NPAO, 2001eko urriaren 17koa)
  - Erriberako migrazio-sektorearen deskribapen laburra. Unión General de Trabajadores. Erdialdea/Ebroko Erribera eskualdeko ordezkariak.
  - Azkoien eta bere eskualdeko immigrazioari buruzko txostena. Unión General de Trabajadores. Erdialdea/Ebroko Erribera eskualdeko ordezkariak.
  - Nafarroako Erriberako Plan Estrategikoaren zabalkuntza. Immigrazio Batzordea. Nafarroako Erriberarako EDER partzuergoa. 2001.
  - Urteko txostena. 2000. Sindic de Greuges de Catalunya. 2001.
  - Sasoikako langileen 2000ko kanpaina. Oroitidazkia. Unión General de Trabajadores. Enplegu Zentro Integrala. Nafarroako Enplegu Zerbitzua. 2001.
  - Sasoikako lanari buruzko zenbait dokumentu. Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra.
  - Sasoikako langileek Araban daukaten problematikaren jarraipena. “Urteko txostena”. 2000. Euskadiko Arartekoa. 2001eko martxoa.
  - “Autonomia Kontseiluen eta Estatuaren XI. Topaketak: aniztasuna aintzat hartzea. Kulturarteko eskola. Ponentziak eta ondorioak”. Iruña. 2000ko maiatza.
  - “Nafarroako Eskola Kontseiluak Ikastetxeko Eskola Kontseiluekin izandako II. Jardunaldia: kulturarteko eskola, egoera eta proposamenak”. Nafarroako Eskola Kontseilua. 2000.
  - Ikasle etorkinak eskolatzeko orientazioak. Nafarroako Gobernuak. Hezkuntza eta Kultura Departamentua. 2001.
  - Hezkuntzatik abiatutako migrazio-politika. STEE-EILAS. 2001eko maiatza.
  - Kulturartekotasunari buruzko taldearen ondorioak. Asociación de Directores de Instituto de Navarra/Nafarroako Institutu Zuzendarien Elkarteak.
  - Immigranteak Bigarren Hezkuntzan eskolatzeari buruzko taldearen aurrekoak edo osagarriak diren neurriak. “ETI” eta “Benjamín de Tudela” Bigarren Hezkuntzako Institutuen eta Tuterako “La Anunciata” eta “S. Francisco Javier” ikastetxeen proposamena.
  - Immigrazioarentzako zerbitzuen gida. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua. Nafarroako Gobernuak. 2001.
  - Antonio Izquierdo Escribano: “Immigrazioa: lan-merkatua eta gizarte-babesa Espainian” izeneko proiektua. Espainiako Ekonomi eta Gizarte

Kontseiluak proiekturik onenari emandako 2001eko sari nazionala.

- Antonio Izquierdo Escribano: El Ejido eta migrazio-ereduaren aldaketa. El País. 2000ko martxoaren 18a.
- Nafarroako eta nazio-esparruko komunikabideetan agertutako zenbait informazio. 2000/2001 urteak.

#### ESKATUTA BAINA JASOTZEKE DAGOENA

- Tuterako Udalaren Plan Integrala. Tuterako Udala. Nafarroa.

#### SARRERA

Atzerritarren gaietarako ordezkari Enrique Fernández Miranda jaunak Ceutan adierazi zuen, orain dela denbora gutxi (2001eko urriaren 22a), legez kanpoko etorkinek "etorkizun handirik ez" zutela: "Legez kanpoko egoerak ez du etorkizunik eskaintzen", zioen.

Bestalde, Gobernuak 2002ko langile atzerritarren multzoa bertan behera utzi ala ez aztertzen ari da, eskaintzarik eza dela-eta, Lan Ministerioak enpresaburuari euren eskulan-beharrizanak adierazteko emandako epea igaro ondoren. Beharrian horiek adierazteko, kontratatu beharreko lan-motari buruzko formulario berri bat, askoz ere zehatzagoa eta xehekatuagoa, aurkeztu behar zuten.

Sindikatuak eta enpresaburuak bat zetozen Espainian jadanik dauden langile etorkinak arauzkotzeko prozesua bukatzea lehentasuneko dela jotzean. Langile-multzo hori osatzen dute zapuztutako joan-etorriko hegazkin-bidaia hartarako izena eman zuten 25.000 ekuadortarrek eta Barne Ministerioak bultzaturiko errotze-prozesuan parte hartzea erabaki zuten 200.000 etorkinek. Sindikatu eta enpresaburuak aditzera ematen ari dira arauzkotze prozesua Ministerioak espero zuena baino askoz ere motelagoa izaten ari dela, eta etorkin-multzo horretan dagoen eskulana nahikoa dela eskaintzari erantzuteko, kontuan izan gabe haien arauzkotze-egoera zein den –hau da, paperdunak nahiz paperik gabeak izan–. CEOEk soilik –zehazki, haren kanpo-aholkuemaile Fabián Márquezek– esaten zuen komenigarria dela katalogazio zailako sektore edo lanetarako nolabaiteko kupoa ezartzea, sektore horietako jardura "ez itotzearen".

Datu horien bidez, "Nafarroako Erriberako immigrazioari buruzko txosten" hau bukatzean etorkinek bizi duten egoeraren nondik-norako orokorren ikuspeirik gaurkotuena eskain daiteke.

Nafarroako Arartekoak bere arioz eginiko txosten hau prestatzen hasi zen Nafarroako Unibertsitate Publikoak Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren ekimenez gure Komunitateko immigrazioari buruz eginiko azterlanaren berri publikoki ematearekin batera. Txosten horretan oinarritzen da departamentu horrek taxuturiko "Etorkinak gizarteratzeko planerako proiektua" deritzona, 2001eko ekainean aurkeztua eta 2000ko maiatzaren 18an Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak arlo horretan hartutako erabakiari Gobernuak emandako erantzuna hezuramaitzen duena.

Bestalde, "Nafarroako Erriberako immigrazioari buruzko txosten" hau Nafarroako Arartekoak bere arioz eginiko lehen azterlana da, eta joan den maiatzean Parlamentuko Mahaiari eta Eledunen Batzarrari aurkeztu zitzaizen Zirriborro Estrategikoa jadanik iragarrita zegoen.

Txostenari ekainaren erdialdean ekin zitzaion, eta bere asmoa da etorkinen egoerari buruz eta haiekin Nafarroako Erriberan eta bere eragin-eremuetan eginiko lanari buruz erakunde honek, Parlamentuak eta gizarteak dauzkaten informazio-beharrizanak asetzea. Arreta bereziz aztertzen ditu etorkinen eskubide ekonomiko eta sozialei dagozkien alderdiak.

Datu hauek eta beraietan oinarrituriko gogoelek duten balioaz gain, oso garrantzitsua da azpimarratzea hori guztia prestatzea literalki ezinezkoa izanen zela inolako ordainik gabe lagundu diguten eta euren denbora eta lanak eskaini dizkiguten guztien lankidetzat izan ez bagenu. Haiek egoera benetan eta zuzenean ezagutzeak eta haiekin nahiz aztergai dugun eskualdeko zenbait udalekin izandako elkarrizketek eman digute txosten honetan egiten diren oharren eta Arartekoak adierazitako iritzien oinarria. Burubide eta analisi horiek, betiere, Arartekoak duen zereginaren ikuspegitik adierazten dira; hau da, herritarren eskubide eta askatasunak defendatzearen ildotik. Uste osoa dugu, alabaina, gizarte-gogoetek balio komun bat daukatela; are gehiago honakoa bezalako kasuetan, non aldi berean bestelako ikusmolde batzuk –azkenik lan honetan adierazitako iritziarekin nahitaez bat ez datozenak– aintzat hartu izanaren balio erantsia baitaukatete.

Iruña, 2001eko abendua

Nafarroako Arartekoa: María Jesús Aranda Lasheras

#### JOERA

Gure Komunitatean immigrazioaren fenomeno, berria izaki, behar bezain ezaguna ez izate-

ak, Espainiako gainerako lurraldeetan bezala (etorkinen bi heren 1999 baino beranduago iritsiak dira), ustekabean harrapatu ditu administrazio publikoak, ohituta baitzeuden:

- Gobernu sozialisten garaiaz geroztik, legedi murriztaile batera: nabarmenki zaintzailea, interpretazio iluneko arauetan oinarritua, etorkinen sarrera Europako eskulan-beharrizanaren arabera murriztu edo baimentzen zuena. Beraz, immigrazio kontrolatua, hautatua eta Barne Ministerioko arauen menpekoa. Laburbilduz, egoera horretan araudia nahikoa zen eta immigrazioa kontrolagarria, eta lanaren ekarpena, balio gisa hartuta, lan-merkatuaren beharrizanera egokitua zegoen.

- Aldi baterako eskulan-eskaintzari erantzuteko nahikoa zen barne-migrazio mugimendu batera; horrela, eskaintza eta eskariaren arteko oreka ere mantentzen zen, batez ere eskulan nazionalaren bitartez.

- Hazten ari ziren jarduera ekonomikoko sektore batzuetara. Sektore horiek lan-araubiderik ez zeukaten, baina euren burua arautzen zuten sektorearen esparruko edo aldi baterako mahai edo akordioaren bitartez, administrazioen esku-hartzearekin nahiz esku-hartzerik gabe. Sektoreek euren burua arautzeko eta ekonomikoki edo sozialki sentiberenak diren sektoreetan ere merkatuaren jardun askea sustatzeko erabaki politikoak administrazioei zero kostua zekarkieten lan-esparruak izatea ahalbidetzen zuen, baita funtsezko zerbitzu batzuei –ikuskaritza kasu– zegokienez ere, eta lan-merkatu horren benetako funtzionamenduaren gaineko erantzukizuna erakunde sozialen eskutian uzten zuen.

Bestalde, etorkinen beharrizanek laguntza-zerbitzuei sortarazitako zailtasunei –eskola, osasun edo etxebizitzaren esparruetan– aurre egiteko presio politiko edo sozial berezirik ez da izan, eta horietarako irtenbidea, zenbait kasutan, zuzenean etorri da udalen lankidetzaren, sindikatuen presioa dela medio enpresek parte hartzearen edo giza laguntzako erakundeen babes ia orohartzailaren eskutik.

Beraz, administrazio publikoek orain arte izan duten immigrazioa aldi batekoa, egituratua, planifikagarria eta, gizarte zerbitzuen kostuaren ikuspegitik, merkea izan da.

Hiru urte beranduago, egoerak aldaketa nabarmena jasan du.

Kantitatearen ikuspegitik, immigrazioak araudia gainditu du, eta neurri polizialak immigrazioa gerarazteko nahikoak ez direla frogatu du. Jatorri diren herrialdeek euren barne-kontrolak lasaitu dituzte, Europar Batasuneko herrialdeek daukaten garapen ekonomikoaren aurrean pairatzen duten barne-tentsio politiko edo ekonomikoa jaisteko, eta agerian gelditu da herrialde garatu edo mugakide horien beraien nazioarteko aurreikuspenik eza. Gainera, nahiago izan dute gizarte-hedabideek “erakarpen” efektua sustatzeko daukaten eragin-ahalmenaren norainokoari jaramonik ez egitea.

Nolakotasunaren ikuspegitik, immigrazio berriak areagotu egin du Nafarroara etorri diren etorkinen aniztasun kulturala; agerian utzi du aniztasun kultural eta sozial horri erantzuteko Espainiako eta Nafarroako administrazioek daukaten antolaketa-zailtasunak; abegi egiteko sistemarik eza begi-bistan utzi du, aurreko hamarkadetan beharrezkoak jotzen ez zirenez ez baita horrelakorik antolatu; foru edo toki administrazioen ardurapeko gizarte-laguntzako sistemak eskasak dira. Era berean, etorkinek eta sektore horietan (zeinetan aldi bateko lanpostuak eta mugikortasun geografikoa ezaugarri baitira) diharduten ohiko langileek “lan-balioan” egiten duten espekulazio-presioari zuzenbidean oinarriturik aurre egin ahal izateko lan-jardueren sektoreak behar beste araturik egoteak eta kontrol-bitarteko egokiak izateak duten garrantzia ez da aintzat hartu.

Gizartearen ikuspegitik, oro har etorkinen kolektiboa, eta, bereziki, Nafarroako Erriberakoa, barnean baztertua izateko dituen arriskuak ugaritu eta larritzeko joerarik handieneko gizarte-sektorea da, arrazoi etnikoak direla-eta. Etorkin-kolektibo batzuen aldaketa-prozesuak euren egoera sozial eta ekonomikoan hobekuntzak ekar ditzake etorkizunean, baina beste kasu batzuetan euren gizarte- eta lan-integrazioko prozesua porrotaren eta bazterketa handiaren ildotik bideratua dago. Europar Batasunetik kanpoko etorkinen harrerari eta gizarte-integrazioari dagozkien politikek porrot egitea da Nafarroako gizarte-batasunarentzako arriskurik handiena une honetan (1).

## ESKUMEN-ESPARRUA

Immigrazioari dagokionez, Konstituzioaren araubideak ezartzen du lurralde berean (kasu

(1) Miguel Laparra Navarro, NUPeko Gizarte Laneko Departamentuko irakasle titularra, “Nafarroako Erriberako Plan Estrategikoaren Zabalkuntza. Immigrazio Batzordea” izeneko txostenean aipatua. Erriberako EDER partzuergoa.

honetan, Foru Komunitatean) jarduten duten administrazioen arlo ezberdinetakoak diren eskumenak daudela. Izan ere, 1978ko Konstituzioak nazionalitate, immigrazio, emigrazio, atzerritar eta asilo-eskubideen esparruko eginkizun guztiei dagokienez (hau da, legegintzakoak, exekutiboak eta administratiboak) Estatuko administrazioarentzat ezartzen duen eskusibotasun nabarmenak egoera malguago bateranzko bilakaera izan du, gure herrialdeak gai honetan bizi izan dituen aldaketei aurre egitea ahalbidetuko duen administrazioarteko lankidetzagiro baten bila. Araubide berri baten behar horrek berak ekarri du koordinazioa lortu beharra, migrazio-mugimenduen gaineko politikak (Estatuko Administrazioaren eskumeneko gaia da hori) lan-merkatuko beharrianak kontuan izan ditzan.

Abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak berak, zeinak urte horrexeko urtarrilaren 11ko Lege Organikoa aldatu baitzuen, zioen azalpenean ohartarazten du jadanik une horretako migrazio-mugimenduek eragina izanen dutela Estatuko eta autonomia erkidego guztietako administrazioen zereginean, administrazio-jarduerako zenbait arlotan.

Beranduago Ministroen Kontseiluak onetsitako GRECO Planak (Atzerritarrak eta Immigrazioa Arautu eta Koordinatzeko Programa Orokorra) espresuki adierazten ditu autonomia erkidegoen eskumenak, eta "zeregina ematen die immigrazio arloko administrazio-jardueraren prozesuan" (2). Horrela, ukituriko administrazio guztiek parte hartuko lukete, zeinek bere erantzukizunen esparrutik, politika horren taxutzean edo aplikazioan.

Aipaturiko GRECO Plana, zeina indarrean baitago, erreferentziako dokumentua da, eta 1994ko Planekoaren antzeko antolamendu bati eusten dio. Horren arabera, migrazio-politikaren taxutzea eta migrazio-mugimenduen arauketa Estatuari dagozkio; autonomia erkidegoek, ordea, integrazio-politikak garatu behar dituzte, eta neurri batean bakarrik.

Antolamendu horrek ez du funtsezko aldaketarik izan Atzerritarrei buruzko Legea onestean. Dena den, bitartean, autonomia erkidego batzuek (besteak beste, Foru Komunitateak berak) etorkinak gizarteratzeko euren plan berekiak taxutu dituzte.

Antolamendu berari eusteko, modu malguagorik edo erantzukizuna elkarrekin banatzeko egituraketa handiagorik izan ezean, ondokoak behar dira: eskualde- eta toki-administrazioek euren eskumen berekiak eskuratzea, immigrazioari buruz Estatuak dituen irizpideetan eta enplegu nahiz gizarteratzeari buruz eskualde- edo toki-agintariek dituztenetan eragiten duen informazioa helarazteari dagokionez lankidetzagogotsuan aritzea –orain ez bezala–, eta udalerriek parte-hartze irekia eta zuzenekoa izatea, etorkinei begira gizarte-politikak benetan kudeatzen dituzten zentroak diren aldetik. Puntu horiek guztiak aipatzen dituzte, nahiz eta muga batzuekin, "Espainiaren hazkuntzari ekarpen aktiboa egiten dioten egoiliar atzerritarrak eta haien familiak integratzea"ri buruz GRECO Planak dituen atalek. Plan horretan autonomia erkidegoei eskumenak aitortzen zaizkie osasun-laguntza emateko, etorkin diren ikasleei berariazko hezkuntza-laguntza emateko, Estatuko administrazioarekin lankidetzag hitzarmenak egiteko eta, halaber, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatu ahal izateko xedez hezkuntza-sisteman zenbait balio susta ditzaten.

Alabaina, beste jarduera-ildo batek ("Migrazio-mugimenduak erregulatzea, Espainiako gizarterako bizikidetasuna bermatzeko") adingabeko atzerritarrak babesteko balizko hobekuntzetara mugatzen ditu eskumen horiek, eta adingabekoen gaineko eskumen horiek "Errefuxiatuak eta lekuz aldatuak babesteko sistema mantentzea" kapituluan biltzen ditu berriro, asiloa eskatu duten adingabekoentzako abegi-zentroi dagokienez.

Autonomia erkidegoei esleituriko eskumen horien osagarri, hiru organo kolegiatu sortu dira, beste hainbeste errege dekreturen bitartez: alde batetik, Immigrazio Politikarako Goi Kontseilua (apirilaren 4ko 344/2001 Errege Dekretua); bestetik, Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra (apirilaren 4ko 345/2001 Errege Dekretua); eta, azkenik, Immigranteak Gizarteratzeko Foroa (apirilaren 4ko 367/2001 Errege Dekretua).

Organo horietako lehenak (Immigrazio Politika-rako Goi Kontseiluak) immigrazioak integratzearen arloan eskumenak dauzkaten administrazio publikoen ekintzak koordinatu behar ditu, eta lurralde-administrazio guztiak hartzen ditu bere barnean. Aipaturiko lurralde-administrazioei entzun omen zaie Kontseilu hori eratzekeo prozesuan.

(2) "Procurador del Común erakundea eta atzerritarrak" ponentzia, *Gaztela eta Leongo procurador del Común Manuel García Álvarez jaunak Arartekoak Koordinatzeko XVI. Jardunaldietan aurkeztua. Madril, 2001eko azaroaren 12 eta 13.*

Bestalde, Immigrazioaren Behatoki Iraunkorra izena duen organo kolegiatuak helburu du immigrazioaren errealitatearen joera eta bilakaera eza-gutzea eta migrazio-mugimenduak bideratzeko nahiz atzerriko egoiliarren integrazterako proposamenak prestatzea. Organo horretan lau erkidegok bakarrik parte hartzen dute, erkidego guztiak ordezkatzuz, eta baita beste erkidego batzuek ere, haiek bertaratzea egokitzat jotzen denean.

Azkenik, Immigranteak Gizarteratzeko Foroa Gobernuaren kontsulta, informazio eta aholku-emaile lanetarako organo kolegiatua da, eta, kasua denean, baita autonomia eta toki administrazioena ere; oinarritzko eginkizuntzat dauka administrazio publikoen arteko lankidetzaren koordinatzea. Dena den, kasu honetan autonomia erkidegoek bi ordezkariaren bitartez parte hartzen dute; ordezkari horiek lehen aipaturiko Immigrazio Politikarako Goi Kontseiluak izendatzen ditu.

Immigrazioaren gaur egungo prozesuen errealitateak, ordea, argi agertzen du, eskumenak eskusiboak diren esparru horretan eginiko aldaketak egin arren, eskualde- eta toki-administrazioa direla immigranteentzako laguntzaren zuzeneko arduradunak, eta, beraz, administrazio zentralak taxuturiko migrazio-politiketan aurretiaz eta behar den moduan eragin eta aldaketak egiteko daukaten ahalmena kontuan hartzekoa da (ahalmen hori gauzatu behar da, GRECO Planak bilatzen duen bezala, eraginkorra izateko elkarrekin eta erantzukizuna banatuz bakarrik egin daitekeen informazio- eta erabakitzeko-prozesu batean). Nafarroako Gobernuak prestatu duen eta berriki eza-gutu den Etorकिनak gizarteratzeko Planaren proiektua publikoki eztabaidatzeak eremu egokia eskain dezake Nafarroako administrazio publikoen azterketa eta haien eskumenen berrikuspena egiteko, dokumentu horretatik abiatuz.

Bestalde, Kataluniako Sindic de Greuges delakoaren irizpidearekin bat etorritik, interpreta liteke immigrazio-gaian Estatuak daukan eskumen osoa autonomia estatutuek (Nafarroaren kasuan, Forua Birrezarri eta Hobetzeko Legeak) zenbait sektoretako ekintzei dagokienez (etxebizitza, hezkuntza, gizarte zerbitzu edo lanaren arloak kasu) ezarritako eskumenekin moldatu beharrekoa dela. Moldaketa horren emaitza ederki asko izan liteke gure ordezkari buruzko ikusmolde zabalago bat, edo, besterik gabe, autonomia erkidego horiek parte-hartze handiagoa izatea kopuruak erabakitzeko orduan, prozesu txukunago bat lortzeko.

Puntu honetan gogoraraztekoa da, halaber, Konstituzioko 149.1.2. artikuluko xedapenak (zeinek Estuari erreserbatzen baitiote immigrazio-

arloko eskumen osoa) ezin direla Konstituzioa onetsi zen une historikotik banandu (ofizialki emigratzaile-herria izan berria zen Espainia hura), eta, bestalde, ezin da ahaztu autonomia erkidegoek zenbait arlotako politikan daukaten erantzukizuna: etxebizitza-arloan (148.1.3a artikulua), gizarte-zerbitzuetan (148.1.20a artikulua), osasunean (148.1.21a artikulua) eta hezkuntzan (149.1.30 artikulua, 159.3 artikuluekin loturik).

Administrazioen arteko lankidetzaren eraginkorra erdietsi behar hori bateragarria da guztiz hain errealitate konplexu bati egokitzeko moduko esparru juridiko bat egotearekin. Errealitate hori, hain zuzen ere, gero eta konplexuago bihurtu da, kuantitatearen eta kalitatearen ikuspegitik, gobernu sozialistaren atzeritarrei buruzko lege hura onetsi zenetik edo Alderdi Popularraren ekimenez lege organiko berriak indarra hartu zuenez geroztik. Etorकिनen etorrera atergabea da, nazioko gobernuak berak jakinarazitako datuen arabera, eta Barne Ministerioak etorकिनen errealitatea lan-merkatuaren beharrezko ofizialei egokitzeko eginiko ahaleginak oraindik ez dirudi nahikoak direnik errealitate horixe bera gaitzeko; besteak beste, ordezkariak aplikatu ahal izateko –etorkinei etortzeko asmoa burutik kentzeko edo haien etorrera arautzekoak– denbora-epe bat behar delako, eta, kasu honetan, kontrakoa duela Nafarroan eta Espainian gorantz doan immigrazioaren errealitatea.

Gainera, kezkarria da polizia-neurri murriztailagoak (jatorri batzuetako herritarrentzat iragarritakoak kasu) hartzeak oraindik arauzkotu gabe dauden edo arauzkotzen zailak diren etorकिनen egoeraren lege kanpokotasunean eragitea; izan ere, ez da gauza erraza eskubideen ikuspegitik eztabaidagarriak diren neurri horiek berehalako arrakasta izatea neurri horien eta etorकिनen giza eskubideen arteko leizea are gehiago sakondu gabe (Atzeritarrei buruzko Legea deitu zaionaren aurka aurkezturiko errekursoa aztertzean Konstituzio Auzitegiak gai honetan zer esaten duen ahaztu gabe) edo mafien ekintzei eta “papergabe” deritzen fenomenoari nahi gabeko bultzada eman gabe.

Ildo orokor honetan, arauzko immigrazioa sustatu behar da, eta, epe ertaineko ikuspegi horrekin, kanpo-mugetako kontrola indartu behar da, bisatuetako iruzurrei aurre egin behar zaie, eta premiazko neurriak aztertu behar dira Espainiarekin berrartze-hitzarmenik sinatu gabeko jatorritzko herria daukaten herritarrentzat, pertsona-kolektibo horrek pairatzen baititu modurik latzenezan immigrazio eta familiarengandiko deserrotze orok ekaritzen dituen ondorio negatiboak, eta pertsona

horiek ere baitira egoera etsigarrian dauden herri batzuetatik alde egin ondoren haietara itzuli beharri ziurrenik ihes egingen diotenak.

Espainiako Gobernuak behar diren aldebiko akordio horietara iristea lortu bitartean, Foru Komunitateko administrazioak herritar horien arauzkotze berezia sustatu behar du, giza arrazoiak eta arrazoi ekonomikoak direla-eta. Horretarako, gizartearen babes paregabea dauka, eta, gainera, ez da ahaztu behar emigratzaileek ekartzen duten aberastasun orokorra prestazio moduan jasotzen dutena baino handiagoa dela, prestazio horiek foru gobernuarengandik nahiz egoitza daukaten udalengandik jasotzen dituztela ere. Jakina, gobernuaren erantzukizuna da, baina immigrazioari dagokionez Nafarroako gizartearen baitan adostasun sozial eta are politiko nabarmen baino nabarmenagoa egoteak adostasun aipagarria ekar dezake eskumenei buruz gobernuak duen ikusmoldeari eta hark immigrazio-arloan duen egiteko sozial eta ekonomikoen multzoari dagokionez (azken hori oraindik garatzeke dago, eta etorkinak gizarteratzeko planerako proiektuan aipatuta dago).

Bestalde, Espainian azken bi urteotan izandako migrazio-fenomenoa aztertzean, zenbaitetik jadanik aipatu dute gure herriko errealitate demografikoa. Zehazki, Nafarroak, beste herri eta erkidego batzuekin batera, jaiotza-indizerik baxuenak dauzka, eta badakigu tasa hori igotzeak zuzeneko eragina duela hainbat arlotan, pentsioak ordaintzeko ahalmenetik unibertsitateko matrikula-kopururaino (3).

Etorkinak egoteak batez besteko jaiotza-tasan duen eragin positiboak indize horrek izandako beherakada eragingabetu dezake. Beherakada horren zergatia da, adibidez, etxebizitzaren kostu handia, zeinak oztopatu egiten baitu familia-talde berriak garatzea edo horiek handitzea, Komunitateak azken urteotan egoera ekonomiko ona izan duen arren. Baina, gainera, migrazioaren fenomenoak badauka ekonomia berrietako egiturazko ezaugarri bihurtzeko joera saihestezina. Nafarroa jaiotza-tasa baxuko komunitate bat da, eta Estatu-ko beste leku batzuetatik biztanleak erakartzeko ahalmen urria dauka, Espainian dagoen mugikortasun geografiko apala dela-eta. Beraz, gure hazkuntza ekonomikoaren jarraitasuna eta biztanleriaren ongizatearen hobekuntza Europar Batasunaz kanpoko etorkinen kolektiboa gizarte-

an eta lanean integratzeko ahalmenaren arabera-koa izanen dira. Bestalde, Nafarroan immigrazioa pixkanaka igoko dela aurreikusten da. Prozesu honek, berez konplexua izaki, estrategia orokor bat sortzera behartzen du, pertsona horiek gizartean eta lanean integratzeko ere, kolektibo horrentzako gizarte-zerbitzuak eta laguntza-ekin-tzak gaingintuz: integrazio-esparruaren definizioa egin behar du, eta pertsona horien laneratze eta gizarteratzean zuzeneko eragina daukaten alderdiak aintzat hartu behar ditu.

Funtsezko eginbeharra da gizabanako horiek gainerako herritarrek dauzkaten eskubide berberak izatea.

Ildo honetan, gizarte-ekimeneko entitateek eta langileen eta/edo ugazaben elkarteek ezin dute ordeztu eskualde- edo toki-erakundeek ekimena eta erantzukizuna; hala ere, haien laguntza-sarea eta langileak (zeinek esperientzia izan baitute azken bi urteotan eremu publikoaren zereginean) laga ditzakete, egokitzen jotzen diren hitzarmenen bitartez.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da oinarritzko jardunbide batzuk aplikatzea beharrezkoa dela —egiten den eskumen-banaketa edozein dela ere— administrazioen arteko ekintza hori eraginkorra izatea lortzeko:

1. Etorkin-mugimenduei eta lan- nahiz egoitza-baimenei buruzko administrazio-informazioa berehalakoan eskuratu ahal izateko jardunbideak sortzea.

2. Etorkin-kopuruak finkatzeko xedez ministerioen artean eginiko elkarrizketak aurretiazko denbora-epe bat izan dezala errealitateari behar adina loturik dauden lan eskaintza proposamenak prestatzeko (errealitate hori beti izanen da gero-koa, nahiz eta denboran hurbil egon).

3. Lan eta Barne Ministerioen eta lan-arloan eskumenak dauzkaten eskualde-erakundeek ikus- kapen-eginkizuna berriro abian jartzea.

4. Foru administrazioa neurri handiagoan kordinatzea sindikatuekin eta enpresaburuen erakundeekin, lehentasunez eta modu iraunkorrean etorkinen eskulana erabiltzen duten sektoreetan lan-hitzarmenak aplikatzea aztertzeko.

(3) Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da emalkortasunak azken urteotan izugarritzko beherakada izan duela immigrazioaren jatorri diren herrietan, Saharaz beherako Afrikakoetan eta Ekialde Hurbilekoetan izan ezik, eta orain iristen ari diren immigranteak jaiotza-tasa handia izan zuen belaunaldi batekoak direla.



## JATORRIA

Europar Batasunetik kanpoko etorkinen kopurua (15.000 pertsona inguru; alegia, Komunitateko biztanleriaren % 2,8, gutxi gorabehera) eta Nafarroako populazioan duen pisua lau aldiz biderkatu da 1997tik 2000ra bitartean. Beranduagoko datuek adierazten dute Nafarroan 20.000 etorkin baino gehiago daudela. Horietatik erdia baino pixka bat gehiago latinoamerikarrak ziren, eta laurdena baino gehixeago magrebtarrak ziren. Nafarroan erroldaturiko herritar-kopururik handiena duen herria Ekuador da. Kopuru hori asko hazi da azken urteotan. Latinoamerikako bi herrik (Ekuador eta Kolonbia) eta Magrebeko beste bik (Maroko eta Algeria) Nafarroan mila herritar baino gehiago erroldaturik dauzkate bakoitzak 4.

2000ko erdialdean Europako Ekialdeko immigratzaileen etorrerak gorakada izan zuen, Magrebeko immigratzaileak gero eta ugariagoak ziren, eta Latinoamerikako immigratzaileen kopuruak ere gora egin zuen. Joera horren gorakada, ia bertikala, 1999ko hasieran hasi zen.

## EZARPENA (5)

Iruñak eta Tutereta eta Tafallako eskualdeek agertzen duten immigratzaile-proporzioa batez bestekoa baino pixka bat handiagoa da. Nazionalitate bakoitzekoak modu ezberdinean daude lurraldean barreiatuta. Horrela, magrebtarretatik gehienak Erriberan daude, eta latinoamerikarrak, ekialdeko europarrak eta gainerako afrikarrak nagusiki Iruñean eta Iruñerrian bizi dira.

**NAFARROAKO UDALERRIETAN  
ERROLDATURIKO ATZERRITARRAK.  
2000KO IRAILA-URRIA (6)**

	Guztira	Iru- ñerria	Nafarroaren gainontzekoa
Europar Batasuneko herriak	2.857	1.722	1.135
Bestelako herri garatuak	230	171	69
Munduaren gainontzekoa	14.470	7.470	7.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.557</b>	<b>9.363</b>	<b>8.194</b>

**NAFARROAKO UDALERRIETAN ERROLDATU-  
RIKO ATZERRITARRAK. 2000KO IRAILA-URRIA  
Herri-talde handiak (7)**

	Guztira	Iru- ñerria	Nafarroaren gainontzekoa
Latinoamerika	7.952	5.014	2.935
Magreb	3.809	764	3.045
Afrikako gainontzekoa	738	523	215
Ekialdeko Europa	1.375	885	490
Asia	576	274	302
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.470</b>	<b>7.470</b>	<b>7.000</b>

**NAFARROAKO UDALERRIETAN ERROLDATU-  
RIKO ATZERRITARRAK. 2000KO IRAILA-URRIA  
Adinaren eta herri-talde handien arabera (8)**

	16 arte	16-29	30-44	45-64	65 edo gehiago	Guztira
Ekialdeko Europa	210	525	521	111	8	1.375
Magreb	421	1.411	1.736	219	20	3.809
Afrikako gainontzekoa	49	296	332	59	2	738
Latinoamerika	1.005	3.066	3.104	677	100	7.952
Asia	43	226	237	61	8	576
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.738</b>	<b>5.527</b>	<b>5.937</b>	<b>1.127</b>	<b>138</b>	<b>14.470</b>

**EBROKO ERRIBERAN ERROLDATURIK DAU-  
DEN EUROPAR BATASUNAZ KANPOKO ATZE-  
RRITARREN BANAKETA, GIZARTE-ZERBI-  
TZUEN OINARRIZKO ESKUALDEEN ARABERA**

Gizarte Zerbitzuen Eskualdea	Biztanleria guztira 1996	Inmigratzaile- kopurua	Biztanle. g. proporzioa 1996 (%)
San Adrián	121.505	482	3,9
Azkoien	11.825	700	5,9
Buñuel	13.161	622	4,7
Cascante	10.285	274	2,7
Corella	9.502	297	3,1
Tutera	26.857	1.282	1,6
Valtierra	11.653	432	11,0
Cintruénigo	7.513	535	7,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>103.301</b>	<b>4.624</b>	<b>4,47</b>

(4) NUPeko txostena. 2001.

(5) "Nafarroako Erriberako Plan Estrategikoaren zabalkuntza. Immigrazio Batzordea" izeneko txostena. Nafarroako Erriberako EDER partzuergoa.

(6) NUPeko txostena. 2001.

(7) NUPeko txostena. 2001.

(8) NUPeko txostena. 2001.

**IMMIGRATZEAREN ZERGATIAK (9)**

Bizimodua hobetzea kasu gehienetako arrazoia da (inkesta egin zaienen % 87rentzat), eta "txirotasunetik alde egitea", adierazkorragoa, kasuen % 36koa; baina bereziki aipatzekoa da etorkinen % 17,7k euren familiarekin biltzeko asmoz hartzen dutela immigratzeko erabakia.

Etorkinen ia erdiak seme-alabak zeuzkaten emigratu aurretik, eta bereziki interesgarria da egoera hori gehienbat Ekuadorko immigratzaileen artean gertatzen dela.

Nahiz eta Nafarroan familiak berriro bat egitearen asmoa edo, alderantziz, jatorri den herrira itzultzearena, etorkinaren jatorriaren arabera aldatzen den, jatorri den herrian euren ardurapeko ahaideak utzi dituzten pertsonen ehuneko oso handia da.

Helmugarako Espainia aukeratzeko arrazoi nagusiari dagokionez, aipatzen da harreman pertsonalak izatearena eta lege-aldaketen edo arauz-kozteen eragina mugatua izatearen itxura (behinik behin, epe luzera behatzen denean).

**IKASKETAK**

Etorkinen batez besteko ikasketa-maila adin bereko nafar biztanleek dutenaren oso antzekoa da, nahiz eta azpimarragarria den aljeriarren prestakuntza akademikoa. Marokotik datozen etorkinak dira ikasketa-mailarik baxuena dutenak.

Kopuru hori gaur egun gainditua egoteaz gain, egoitza Nafarroan duten biztanle horien ezaugarri bereziak direla-eta neurri bereziak behar dira, haien jatorri geografiko eta kulturalaren nahiz lanbide-prestakuntzaren arabera.

**EGOERA JURIDIKOA (10)**

NUPeko txostenaren arabera, bi heren inguru legezko egoiliarak dira; gainerakoak arauz kanpoko egoeran edo turista gisa daude (ziur aski, 6.300 pertsona baino gehiagoko biztanleria).

Pertsonen % 85 baino gehiago legez kanpoko bihurtzen dira sartu bezain laster, ez baitaukate baimenik "zertara datozen, horixe egiteko; hau da, Espainian bizi eta lan egiteko". Hau da, bost milatik sei milara pertsonak egoitza izanen lukete horretarako baimena ematen dien agiririk izan gabe.

Hala eta guztiz ere, kopuru horiek funtsezko aldaketak jasan dituzte aipaturiko unibertsitateak eginiko azterlana bukatu zenetik, eta arauz kanpoko egoeran dauden pertsonen ehunekoak ere bai. Litekeena da agiririk gabeko egoiliarren kopurua bi aldiz biderkatu izana (10.000tik 12.000ra pertsona).

**ADINGABEKOAK**

NUPEk eginiko txostenean, erregistraturiko adingabekoen kopurua ugaria da eta esanguratsu bilakatu da, zeren eta joera hori, bulego honek lorturiko datuen arabera, gorantz baitoa. Herri batzuetan, pertsona gehiago etortzeak zerikusi zuzenagoa du familiak bat egitearen nahiarekin lana bilatzearekin baino.

**EGONKORTASUNA**

Arrazoizkoa da Nafarroan ezarri nahi dutela esaten dutenen kopurua Komunitatean inkesta egin zaienen % 72,5 izatea; baina esanguratsua da inkesta egin zaien guztietatik % 14k bakarrik esatea euren jaioterrira itzuli nahi dutela.

Inkesta egin zaienen % 72,5ek Komunitatean egon nahi izatea garrantzi bereziko datu bat da etorkizunera begira. Puntu honetan ez dago desberdintasun handirik Latinoamerika edo Magrebetik datozen herritarren ehunekoei dagokienez (salbuespena da euren jaioterrian dagoen gerra-egoera amaitzean itzultzeko asmoa daukaten aljeriarren ehunekoak). Horrez gain, kontuan hartzekoa da etorkinen % 63k euren ahaideak ekarri nahi dituztela eta, halaber, etxebizitza bat aurkitu nahi dutela alogorean (% 36,6) edo jabetzan (% 61,7), egonkortasun ekonomiko eta sozialaren ideal gisa.

**IMMIGRAZIOA ERIBERAN ETA BERE ERAGIN-EREMUAN**

Erribera da etorkin egoiliarren kopuruak batez besteko kopuru nazionala gainditzen duteneko Nafarroako eskualdeetako bat. Zehazki, kopurua % 4,47koa da, hau da, 4.624 etorkin, 2000. urtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko (alegia, NUPeko) Gizarte Laneko Departamentuak eginiko azterlanaren arabera. Are gehiago: esan liteke Erribera dela Nafarroako migrazio-mugimendu guztiaren kimua. Garrantzi bereziko datua da, Erriberako gizarte-egituraren eta garapen ekonomi-

(9) NUPeko txostena. 2001.

(10) NUPeko txostena. 2001.

koan eta Komunitateko gainerako eskualdeetan duen eraginarengatik.

Iragan hurbileko datu batzuk gogoratzuz, esan behar da laurogeita hamarreko hamarkadan ezarri zirela lehen etorkin-taldeak Tuteran; talde horiek batez beste 25 urteko gizonezkoek osatzen zituzten nagusiki, eta jatorriz aljeriarrak edo marokoarrak ziren. Azken bost urteotan, etorkinen multzoa askoz ere kopuru handiagoetan eta modu jarraigoan hazi da, eta etorkinak Ekuador, Kolonbia eta Bulgariakoak izan dira, nahiz eta zenbait herritan, Azagran adibidez, 2001eko ekainean hamar nazionalitate ezberdinetako herritarrak erregistratu ziren (400 emigratzaile erroldaturik, guztizko biztanleriaren % 10). Dena den, eskualde honetan dauden etorkinek nagusiki magrebtarrak izaten segitzen dute, prestakuntza akademiko handikoak aljeriarren kasuan, gehienak gizonezkoak eta batez besteko adina berrogei urte baino gehiagokoa ez daukatenak; gizon ezkongabeen ehunekoa oso handia da, baina aipaturiko gainontzeko jaioterrietako herritarren artean gehienak ezkonduak dira.

Goi Erriberan (Azkoien, Faltzes, Funes eta Martzilla), Azkoienek dauka etorkin-ehunekorik handiena. 2000ko urrian, herri horretan erroldaturiko Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrak 530 ziren guztira, baina gaur egun 700 pertsona baino gehiago dira jadanik, eta horrek herriko biztanleria osoaren % 12 baino gehiago egiten du. Eskualde honetan ere, etorkinik gehienek, alde handiz, Ekuadorko nazionalitatea daukate, eta gainontzekoak Maroko eta Ekialdeko Europakoak dira.

Garai horretan bertan, Funes eta Martzillan 140 eta 160 etorkinek zeukaten egoitza, hurrenez hurren, eta ekuadortarren kopurua txikiagoa zen, nahiz eta marokiar gehiago zegoen. Beste herri batzuetara, ordea, Faltzesera adibidez, ez da hainbeste atzerritar iritsi, eta bertan ehun erroldatu baino gutxiago daude.

Tuterako eskualdean, etorkinen % 50ek ez zeukaten egoitza- edo lan-baimenik 2001eko apirilean, eta ehun etorkin etxoletan bizi ziren.

Gizarte-ekimeneko erakundeek agerian utzi dute eskualdeko udaletako barne-koordinaziorik eza eta Estatuko nahiz Nafarroako administrazioek udalei jarraibide orokorrik eman ez izana salatu dute; erakunde haien iritziz, Estatuko eta Nafarroako administrazioek ez dute problemen gaineko erantzukizuna hartu. Problema horiek, hain zuzen ere, atzerritarren gaitan gaur egun dagoen araudiaren ondoriozkoak dira, arau horiek ez baitote erantzuten immigrazioan berez datzan gizar-

te-problemari, eta gizarte-erakundeei egozten dizkie hasierako laguntzetarako lanak eta jadanik ezarrita dauden etorkinz, entzakoak. Erakunde horietako ordezkariak egiten duten galderak, alegia, "nork hartzen du arazoaren gaineko erantzukizuna?", jarraipena dauka gizarte-arazoaren munitari zuzenean eragiten dion gogoeta batean. Arazo horren jatorria honako honetan dago: gaur egungo etorkinak diskriminaturik daude, eta, aldi berean, Estatuko Administrazioak etorkizuneko immigratzaileak hautatzen ditu herri jakin batzuekin bakarrik sinaturiko aldeko hitzarmenei jarraikiz. Dikotomia hori etorkinentzat ziurgabetasun juridiko handiagoan gauzatzen ari da.

Udalek bete beharreko eginkizunari buruzko iritzia oso positiboa da, baina askotan eskatu izan da eginkizun hori bete dadila; izan ere, udal gobernuak goganbeharrez jokatzeko ari dira euren biztanleen aurrean etorkinen aldeko ekintzak erabakitzeari dagokionez. Horrez gain, udalek ez dute orain arte immigrazio-arloan daukaten gizar-te-problematikei dagokiena elkarrekin koordinatu, eta baten batek gauzatutako ekintza bakanen bat besterik ez da egon, nahiz eta bitartekorik ezari eta gainerako administrazioekin koordinaziorik ez izateari ahobateko kritika egin zaion.

Zerbitzuak bateratzeko eta jadanik daudenak indartzeko udal akordioetara iritsi beharra behin eta berriro aldarrikatu da, batik bat etxebizitzari eta sasoikako langileei laguntzeari dagokienez.

## LAN- ETA GIZARTE-ALDERDIAK

Berriro ere, lanaren ezaugarriek etorkinen bizitzan daukaten garrantziak beharrezkoa egiten du zehaztasunez ezagutzea enpleguaren arloan haiek integratzearekin lotura duten gaiak, eta, jarraian, hertsikiago sozialak direnak.

## LAN-BAIMENAK

1997tik aurrera, Nafarroako immigrazioaren grafikoak lehen gorakada nabarmena pairatu zuten. Aldi berean, legez kanpoko etorkinen guztizko kopurua gehitu egin zen. Emandako lan-baimenek erregistraturiko etorkin-kopurua baino askoz ere urriagoak izaten segitzen dute, eta 2000 urtearen erdialdera arte ez da bi errealitate horien artean hurbilketarik izan: etorkin-kopuruaren eta lan-baimena daukaten etorkinen artean. Dena den, lan-baimenak horrela gehitu arren, lan-baimenen eta etorkinen guztizko kopuruaren arteko aldeak handitzen segitzen du.

## ENPLEGUA

Nafarroa osoan, lan egiteko adina daukaten Europar Batasunetik kanpoko hiru etorkinetik bik lana zeukaten 2000. urtearen bukaeran<sup>11</sup>. Guztira, 8.500 pertsona inguru ziren, eta batez ere etxeko lanetan, eraikuntzan eta nekazaritzan ziharduten.

Emigratzeko arrazoi nagusia enplegua denez, horixe da, halaber, etorkinen integrazioa edo bazterketa ekartzen duen faktore nagusia, eta horixe da, hain zuzen ere, Nafarroara etorritako immigraztaileen arazo nagusietako bat, bi ikuspegitatik: lana lortzea eta lan horretako baldintzak.

Enplegu-arloan immigraztaileek dauzkaten lehentasunezko helburuek desberdintasun gutxi agertzen dituzte orokorreko, zeinak foru gobernuak, sindikatuak eta enpresaburuak erakundeek sinatzen dituzten bi urteko Enplegu Planetan bilzen baitira:

- Langabezia-tasa murriztea.
- Prekarietatea murriztea.

Berriki onetsi den Enplegu Planak bi printzipio horiei eutsi die. Dena den, ohartarazi behar da kontraesan bat dagoela printzipio horien eta foru administrazioak Estatuko administrazioari datoren urterako eskulan-beharrizanak zehaztu ez izanaren artean (zehaztapen horren xedea Barne Ministerioak 2002rako immigraztaile-kopuruak finkatu ahal izatea izan zen).

Foru administrazioaren eta gizarte-ekimeneko erakundeen, sindikatuen eta lanbide-erakundeen lanak aurrerapauso nabarmenak eman ditu azken urteotan, immigraztaileek lana lortzea errazteko; horretarako, kasurik gehienetan, eginiko ahaleginak handiagoak izan dira eskueran zeuden bitartekoak baino, batez ere sindikatuei eta Gobernu Kanpoko Erakundeek dagokienez. Esparru honetan Nafarroako administrazioarekin lankidetzan aritzeko hitzarmenak positiboak izan dira; izan ere, horiei esker, aipaturiko erakundeek arazoaren muinean kokatzea lortu dute, eta laguntza-sistemak ezarri ahal izan dituzte. Eta ahalegin horren eragina nabaritu ahal izan da, hala immigrazioaren afera orokorrean nola sasoikako langile immigraztaileenean.

Erriberan, etorkinen ehuneko handi batek ez dauka lan-baimenik, eta, horregatik, lana aurkitzea oso zail gertatzen da. Nagusiki, noizean behineko lanak egin ohi dituzte, biziraun ahal izateko.

Lan horiek nekazaritza-kanpainen baitan daude, eta, askotan, lanak ez du 3 edo 4 egun baino gehiagorik irauten. Ekoizpenak goia jotzen dueneko bolada horietan, lanaldia egunean 12 ordutakoa izan daiteke, eta oso gutxitan errespetatzen dira aste-bukaerak edo jaiegunak (hain zuzen, gainerako astegunak bezala ordaintzen dira). Ordaintzen zaien soldata orduko 600-800 pezeta bitartekoa da.

Nafarroako Erriberan ohikoak dira astean berrogei ordu baino gehiagoko lanaldiak eta kasuan kasuko hitzarmenean ezarritakoak baino ordainsari baxuagoak. Izan ere, bi kasu horietan gertatzen den esplotazioa Tuterako UGTren Gida Zentroak salatu du eta etorkinen artean informazio-kanpaina bat egin du, langile gisa dituzten eskubide eta betebeharrak buruzkoa.

Euren administrazio-egoera Espainian arazkotua daukaten atzerritarrek lan-baldintza hobek dituzte, nahiz eta askotan abusuak antzeman diren, aparteko orduak edo aparteko ordainsariak ordaintzeari edo oporrei dagokienez; hori gertatzen da, nagusiki, langileek beraiek ez dakitelako zein diren euren eskubideak.

Arguedasen Lituaniako etorkin-kopuru handia dago, eta bertan badaude administrazio-egoera arazkotua daukaten zenbait langile euren kontratuko benetako ordainsaria jaso ezin dutenak, hain zuzen, lan-arloko "bitartekariak" daudelako, gizarte-ekimeneko erakundeetan salatu dutenez. "Bitartekari" horien bidez, etorkin batzuei askatasun pertsonalak mugatzen zaizkie eta eraso sexualak egin zaizkie, jadanik salatu bezala. Irregularitasun-egoera horretan daude, halaber, jatorriz aipaturiko eskualdekoak diren zenbait pertsona, nahiz eta egiaztatu ahal izan den ordainsari horiek txikiagoak izatetik ez dutela etekinik lortzen etorkinak kontratatu zituzten enpresaburuak.

Gauza arrunta da Erriberako langile atzerritarrek "obra edo zerbitzu" bat egin edo emateko kontratuak izatea. Hau da: oro har, biztanle-sektore honek ez dauka lan-egonkortasunik, eta, ondorioz, ezta hortik eratoritzen den egonkortasun ekonomikorik ere. Egoera hori are larriagoa da euren jatorrizko herrian zorrak daukatenean. Eta enpresaburuak administrazio-egoera hori arazkotzearen aldeko jarrera agertzen badute ere, oztopo ugari aurkitzen dute horretarako.

Bestalde, Azagran, non immigrazioarekin zerikusia daukaten arazo larriak baitaude, ase gabeko lan-eskaintza dago, baina ez dago udaleko lan-

(11) NUPeko txostena. 2001.

poltsarik, eta langileen kontratazioa koordinatzen dutenak UAGN eta UGT dira. Euren kontrol-ahalmenetik kanpo, badaude informalki kontrataturiko langile etorkinak, nominarik gabekoak, eta horiei sektoreko lan-hitzarmena aplikatzen zaie, Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko ugazaben kuartari dagokionez izan ezik, hori ez baita ordaintzen.

Gainera, immigratzaileen lan-egoera are larriagoa da kontuan harturik immigratzaile gehien laneratzen direneko sektoreak nekazaritzarena, etxeko lanena eta eraikuntzarena direla, aipaturiko lehen bi sektoreek ez daukatelako lan-arauketa berekirik, tradizio luzekoak izan arren (bereziki, nekazaritza-lanak) eta Nafarroako ekonomian eragina daukaten arren. Etxeko lanen esparruko lanari dagokionez, daukan araubidea jadanik murriztuta gelditu da, gero eta ugariagoa baita eskulan egonkorragoa, lanaldi luzeak pairatzen dituen eta, gehienetan, nolabaiteko espezializazio-maila eskatzen duten jarduerak egiten dituen.

Egoera etorkin-kolektiboen arabera azterturik, kezkarria da Magrebeko herrietatik datozenek bizi dutena, eta egoera hori are okerragoa izan daiteke, beste kolektibo batzuen eraginez (bereziki, latinoamerikarren eta Europako Ekialdeko herrietakoen eraginez) pixkanaka lan-merkatutik kanpora gelditzen ari baitira.

Ziur aski, enplegu-arloan NUPEk prestaturiko txosteneko alderdirik garrantzitsuenetako bat, Gobernuaren plan-proiektuari oinarri ematen diona, etorkinei lehen harrera egiteko prozedurak zehaztu eta antolatzeke ahalmena da. Horietarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren, sindikatu eta enpresaburuen erakundeetako zerbitzuen eta gizarte-ekimeneko entitateen laguntza eskatzen du. Laguntza hori arautu beharko litzateke proposatu den Enplegu eta Immigrazio Batzordearen baitan (Nafarroako Gobernu Lan Departamentua).

Dena den, Nafarroan immigratzaileen enplegua euren legezko edo legez kanpoko egoerak baldintzatzen du, baita Erriberan ere; hau da, Barne Ministerioa egiten ari den arauzkotze prozesuak (prozesu horretan parte hartu ahal izan dutenei dagokienez) eta enplegu horren baldintzek. Eta azken horretan, alegia, zorrozki lan-harremanen esparruan, ari dira etorkinak zailtasun gehienak aurkitzen; hortxe dago etorkinen eta bertakoen arteko dikotomiarik handiena.

Ahalegin gehigarri bat behar da, betiere funtsezkoa, sindikatuen arteko lankidetzari eta horien eta foru administrazioaren artekoari dagokienez, aipaturiko arloan, hau da, enplegu-planenean edo etorkinei laguntzeko xedez bi alderdiak lankide-

tzan –baita ekonomikoan ere– aritzearen arlo zehatzagoan. Argi utzirik lan-baldintza horien gaineko erantzukizuna zuzenean enplegu-emalearena dela, bizirauteko eta gizartean integratu ahal izateko lana behar izatearen eta edozein abusu dagoenean etorkinek jasaten duten babesgabetsun estrukturalaren ondorioz foru administrazioak eta sindikatuek esku hartu beharra behar gorria da.

Arlo honetan ikuskapen-eginkizunak areagotzeko edo foru eskumen berriak garatzeko xedez administrazio zentralarekin koordinatzea garrantzitsutzat jotzen dugu, eta begi-bistakoa da, halaber, bi administrazio horiek elkarrekin koordinatu behar dutela migrazio-politikak taxutzean, hala jakatzea oinarrizkoa baita pertsonak legez kanpo egon eta jardutea eragozteko. Immigrazio-arloan Estatuaren erabaki politikoek foru lurraldean daukaten eragina hainbestearinokoa da –soziala, ekonomikoa, udal-esparrukoa,...– non presentzia eta lankidetzari hori eskatzeak hasieran lehentasunezko helburu izan beharko bailuke. Eta lehentasun horren beharra indar bereziz sentitzen da Nafarroako Erriberan.

Bestalde, lan-baldintzarik okerrenak jasaten dituzten bi immigratzaile-kolektiboak (nekazaritzaren eta etxeko lanen sektoreetakoak) aintzat harturik, NUPEk eginiko proposamena egokia da. Proposamen horren arabera, premiazko neurrien plan bat ezarri behar da bi sektore horietan, eta, plan horrek, besteak beste, gai hauek hartu beharko ditu barnean: nahitaezko prestakuntza, bai zaharrak edo gaixo lagundak zaintzen jarduten duten emakumeentzat bai lanik ez daukaten etorkin guztientzat ere, eta, lanik gabe dauden garaietan, gizarte-babesa eta oinarrizko errenta azkar eskuratzeko bermea. Azken batean, garai batean sasoikako langile etorkinentzat ezarritakoen ildo bereko plan bat, bi kolektibo horiek barnean egiazki hartuko dituen.

Bi jarduera-sektore horien –alegia, neskameenaren eta nekazaritza-lanekoaren– hedapena eta etorkinak diren biztanleen pixkanakako gorakada behar adinako arrazoiak izan beharko lirateke zenbait gai aztertzeko: bi sektore horietan lan-arabidea aldatzea, Gizarte Segurantzarekin zerikusia daukaten kontuak, etorkin langabe nahiz lan-politsetan erregistratuak beste kolektibo behartsu batzuekin parekatu beharko ote liratekeen, eta kontratazio iraunkorrerako laguntzak eskuratzeko zerbitzu integratuak.

Azkenik, enpleguari buruzko atal honetan aho bateko iritzia dago kulturarteko arazoetan espezializaturiko bitartekariak esku hartzearen alde, enpresetan gertatzen diren bizikidetasun-gataz-

kak konpontzeko laguntza-figura berri bat den aldetik; hain zuzen ere, immigrazioaren errealitatea bera dela-eta, figura horrek etorkizunean beste eginkizun gehigarri batzuk, gutxienez ere garrantzi berekoak, betetzeko zeregina duela ematen du.

### SASOIKAKO LANGILEAK

Txosten hau prestatzeko xedez UAGNko ordezkariekin (nekazaritza-arloko enpresaburuak aldetik) eta CC.OO. eta UGTekin (sindikatuak aldetik) eginiko bilerak (bertan Nafarroako Gurutze Gorriko eta Elizbarrutiko Caritaseko beste kide batzuk ere izan ziren) zuen helburua sasoikako langileen egoera zuzenean eta protagonista nagusien bitartez aztertzea izan zen. Bilera horretan, aipaturiko lehen hiru erakundeek esan zuten sasoikako lana eta sasoikako langileen egoera Nafarroan dagoen immigrazioari buruz egin litekeen analisi orokorretik bereizi nahi zituztela; lehenik eta behin, euren lanak lan-arloko ikuspegia besterik ez zuelako onartzen, eta, bestalde, haien aburuz sasoikako lana kontratuaren bitartez bakarrik egiten delako, eta horrek kanpoan uzten ditu arauzkotu gabeko herritar immigratzaileak.

Iritzi horretan ez datoz beti bat immigratzaileekin diharduten gizarte-ekimeneko entitateak berak, nahiz eta sasoikako langileen lana lan-harremanen ikuspegi zorrotzetik behatzearen alde UAGN, CC.OO. eta UGTk agerturiko jarrera errespagarria izan daitekeen.

Hala ere, garrantzi handia dauka gogoeta bat egiteak ikusirik etorkin egoiliarrek sasoikako langileak (zeinak Nafarroara uzta biltzeko helburu bakarrarekin etortzen baitira) pixkanaka ordeztearen prozesua. Ordezte-prozesu hori izan zen arrazoi nagusienetakoa bat Nafarroako Unibertsitate Publikoak eginiko azterlana ezagutu aurretik ere honako txosten hau bere arioz prestatzeko. Mahats-bilketa hutsean jadanik nabaritu ahal izan zen, NUPek bere lana egiten zuela, etorkinen kopurua (3.000) sasoikako langile ohikoenaren antzekoa zela, nahiz eta aipaturiko azterlanak ez duen ezartzen langile horietatik zenbaterik daukaten kontratua.

Etorkinek sasoikako langileak arian-arian ordezte hori dela-eta, sasoikako eginbeharren lan-sistema tradizionalaren funtsa aldatzen ari da, sasoikako langileen kolektibo jakin batzuek daukaten egonkortasuna kontuan hartu gabe, eta eragin sakona izaten ari da eginbehar horietarako kontratatzen ari diren etorkinen nolakotasunaren ikuspegitik. Etorkinek sasoikako langileak ordezte hori bereziki gertatzen ari daiteke arauzkotu gabeko etorkinei dagokienez.

Izan ere, immigrazioaren sektorean diharduten langile-erakundeek berek pentsatzen dute Tuterako eskualdean aldi baterako langileentzat dagoen lan-poltsak ez duela erabilgarritasunik, arauz kanpoko edo arauz kontrako administrazio-egoeran dauden etorkinak aldi berean kontratatzeagatik. Nafarroako Gobernuak jaso ditu, berak eginiko Etorkinak gizarteratzeko planerako proiektuan, NUPeko txostenean eginiko iradokizunak; zehazki, laguntza ematea langile egoiliarrek (batez ere, etorkinak) kontrata ditzaten sasoikako eginbehar horietarako, nekazarien artean dagoen joera positiboa aprobetxatuz, pixkanaka erabiltzen hasiak baitira sektoreko lanbide-erakundeek eta sindikatuek aurreikusitako kontratazio-bideak.

Nolanahi ere, pixkanakako ordezte hori, jadanik egiaztatua, auzitan jartzen ari da sasoikako lanak antolatzeke neurrien eta sasoikako langileei laguntza emateko sistemen norainokoa, biztanleriaz eta filosofiaz denaz bezainbatean. Berritoren ere, hortik salbuetsita geratzen dira sasoikako nekazaritza-lan horietan ohi den bezala jarduten ariketako diren sasoikako etorkinen kolektibo jakin horiek.

### 2000. URTEAREN BALANTZEA

Sasoikako nekazaritza-lanen sektorean diharduten erakunde batzuek emandako datuak batera aztertuz, ikuspegia ez da baikorra, ez egoerari dagokionez ezta etorkizun hurbilari dagokionez ere. Egiazki ikuskatzen den eta kontratu bidez bermatzen den eskulanerako beharrezanek ehuneko zabalagoa egitea eta postu ostatudunen kopuru ahalik eta handiena azalerratez ahalbidetzen duten tresna berriak garatzeko premia gaur egungo egoerari buruzko bi puntu kezkarri dira erakundeentzat. Bestalde, sasoikako langileei laguntzeko zikloa ezin da bukatu, erakunde horietako batzuek adierazi duten bezala, nekazaritzako sektoreak dituen langile-beharrian hutsetan. Alderantziz: zenbait urrats eman beharko lirateke, gutxienez ere proposamena aztertzeari dagokienez, sasoikako langilearen jarduerak abeltzaintzako sektorea eta nekazaritza-elikagaien industria barnean hartu ahal izan ditzan. "Lan-ziklo" hori sortzeak hiru sektore edo azpisektoreen beharrezanek elkartuko lituzke, enplegu egonkorreko eremu bat sortuz. Ziklo jarraitua litzateke; horrek, alde batetik, langileak birlaneratzeko ahalbidetuko luke, eta, bestetik, enpresen sektorearentzat (sektore hori da ostatu-emateari dagokionez arduradun nagusia) laguntza handia den sistema bat mantendu ahal izateko xedez baliabide ekonomikoak eta giza baliabideen esparruan erakundeek eta administrazioak eginiko ahalegina justifikatuko luke.

2000ko sasoiari, foru administrazioak, UAGNk eta sindikatuek antolaturiko egituratik 1.300 langile baino gehiagori kudeatu zitzaizkien euren lan-kontratuak. Horietatik, gehienak gure Komunitatetik kanpoko herritarrek ziren, eta horrek agerian uzten du zeinen garrantzitsua den haiei garraioa eta ostalua posible egitea. Dena den, nekazariak bidalitako lan-eskaintzen heren bat jadanik euren zuzenean beteta zegoen, eta horrek agertzen du UAGNren kanpainak, lan-eskaintzak biltzen zituenak, balio handia izan duela estatistikaren eta antolaketaren aldetik, baina eskaintza horren heren bat deuseza zela hasieratik bertatik, jadanik beteta zegoelako, kontratu berrien bidez edo lehenagoko sasoiaren parte hartu zuten langile batzuekin banaka eginiko hitzarmenen bidez. Azagran, jasotako 32 eskaintzetatik bosti bakarrik eman zitzaizkien baiezko erantzuna, gainerako 21 eskaintzak lehenagotik eskaintza-egileak berak beteta baitzeuden.

Halaber, hasierako enplegu-eskaintzaren eta azkenean eskatzen denaren arteko aldea handia da, nahiz eta sistemaren alderdi operatiborako eragin handiagoa duen lan-eskaintza ugari Gizarte Segurantzako Inskripzio Zenbakia ez izateak, adierazten ez delako edo zenbaki hori ez izateagatik, tramitatu ez izanaren ondorioz.

Etxebizitza lan-eskaintzako funtsezko elementua da sasoiaren langileentzat, eta, arlo honetan, eskaintza horien % 75ek ez zuten barnean etxebizitzarik hartzen, eta horrek eragiten zuen eskaturiko langile guztien % 80rengan.

Ondorioz, Komunitatetik kanpoko eskulana lortzeko zailtasunak gero eta handiagoak dira, eta arazo horri irtenbidea emateko foru administrazioak harturiko premiazko neurriak orain arte eskasak eta ezegokiak izan direla ikusi da.

Begi-bistakoa da administrazioaren, lanbide-erakundearen eta sindikatuen artean taxaturiko sasoiaren langileentzako laguntza-sistemaren sendotasunak gabezia larriak dituela, horien guztien asmoa alde batera utzita. Nekazarien beharrezko asetzeko xedez, sindikatuek eskulana lortzeko eginiko ahaleginari ez diote nekazariak zorrotasun beraz erantzun, kontratazio-formulak errespetatzeari dagokionez, nahiz eta sasoiaren lanaren konplexutasuna eta eskulan-beharrizanei berehalakoan erantzutearen garrantzia ulertzekoak diren. Baina, ziur aski, nekazarien eta beren lanbide-elkarteen artean plangintza eta koordinazioa hobeki egiteak lagundu egin lezake kontratazio-arloan erabilgarria ez dela ikusi den sistema bat arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Etxebizitzaz denaz bezainbatean, oraindik nabarmenagoa da langileek arlo honetan dituzten beharrezkoak asetzeko diharduen kontratu-zatia nekazaritza-enpresaburuek beraiei dagokien erantzukizun gisa onartu ez dutela. Errentan hartzeko etxebizitzarik herrietan edo inguruetan ez izatearen ondorioz errealitatean egon daitezkeen zailtasunak ez dira behar adinako arrazoia nekazaritza-enpresaburuek, zeinek bere aldetik edo guztiek batera, neurri alternatiborik ez bilatzeko, lehenik eta behin beraiei baitagokie horretarako irtenbide bat aurkitzea, alde batera utzirik foru administrazioak esparru honetan izan dezakeen borondatea, edo administrazio horrek berak abiaraz litzakeen neurriak, orain arte gutxi erabiliak.

Gogoeta horren eta Mendabiako udalaren eta UAGNren artean hitzarturiko kanpamentu-esperientziak izan zuten oihartzunaren eraginez, Arartekoak bisita egin zuen kanpamentu horretara. Kanpamentua elkarren segidako bigarren urtez jarrita zegoen herri horretan, eta horri buruz ideia batzuk adieraztea garrantzizkoa da, gaia gehiago argitzearen:

- Kanpamentuaren beraren garrantzia, herriko udalaren eta erakunde batzuen arteko ekimen bateratua den aldetik.

- Bigarren urtez kanpamentua jartzea lortu izanak duen garrantzia, dirudienez aurreikusirik zeuden diru-laguntzen inguruan hasieran izan zen administrazio-koordinaziorik eza gorabehera.

- Era honetako ekimen baten alde UAGNk eginiko ahaleginaren tinkotasuna, eta, proiektuaren beste esparru batean, sektoreko enpresaburuek parte har zezaten agertu duen nahia.

Alabaina, aurten lorturiko ereduaren berri ematean, nahiz eta iaz baino nabarmen hobeto jokatu den, ez zaie jaramonik egin kanpamentu horren beraren datu batzuei; datu horiek, logikaz, zerikusi handiagoa daukate instalazioaren kaskartasunarekin "kanpamentu" kontzeptuaren beraren abantailekin baino. Instalazio horien berri-emate neurri-gabeak bertako segurtasun-, osasun- eta bizikidetasun-akatsak ere areagotu egin ditu, eta lortutako abantailak ezereztatzeko arriskua sortu da.

Hasieran abantailak izan bazituen ere, Mendabiako kanpamentua ez da, oro har, beste kasu batzuetara heda daitezkeen esperientzia eredu bat. Akats larriak dituen arren, Mendabiako ekimenak bidea ireki du lana

- koordinatua egon dadin administrazioekin.

- babesa ematen dioten erakunde guztien –enpresaburuenak eta sindikatuak– zeresan eta parte-hartze handiagoz egin dadin.

- gizarte-ekimeneko edozein entitatek (baina ez horiek bakarrik) izan beharreko esku-hartzearen norainoko zehatza finkatzekoa izan dadila. Gizarte-ekimeneko entitateen xedea besteren ordeztu eta solidaritatez jardutea da, baina jarduera hori ez da inoiz izanen beste erakunde ofizial batzuen erantzukizunaren ordeztu.

NUPen txostenak adierazten du Nafarroan etorkinek pairatzen duten egoera orokorra ez dela Penintsulako beste eskualde batzuetan bezain larria (ziur aski, muturreko egoera batzuk ditu hizpide, hala nola Andaluziako probintziaren batean izandakoak; horien berri emateak biztanleria sentsibilizatu egin du). Dena den, beste errealitate batzuk ezagutzeak ez du Nafarroan egiazaturiko egoeren benetako garrantzia txikitzen, oro har errealitate ezberdina izan arren.

Horregatik, eta gure erkidegoan ez litzatekeelako beste modu batean ulertuko, lanaren eta laguntzaren esparruko proiektu orok bilatu behar du instalazio horietatik nahita edo nahi gabe onurak jasoko dituzten pertsonen izanen dituzten eskubideen eta betebeharren artean oreka zorroztza lortzea.

Edonola ere, langile etorkinen eskubide sozial eta ekonomikoak defendatzea interes publikoko edozein erakunderen eginkizunak barnean hartzen duen betebeharr kolektibo implizitua da, betetzen duen zereginarengatik diru-laguntza publikorik jasotzen duen ala ez kontuan izan gabe (baiezkoan, alabaina, oraindik ere neurri handiagoan esan daiteke hori). Udal ekimenak, horrelako ekimenek ez dagoenean, errealitatearen aurkako ahalegin kementsuak dira, baina eskubideen defentsa bateratu hori bera barnean hartu behar dute, eskubideak gizabanakoek direnean eta kolektiboak direnean ere.

Lehen adierazi bezala, immigrazioaren eraginak sasoikako lana beste esparru batean koka dezake. Ikuspegi honetatik, komeni da gogoeta orokor batzuk kontuan hartzea:

- Immigratzaileek ez dute immigratzaile-izaera galtzen sasoikako lanak egiten hasteagatik, sasoikako langile bilakatzeagatik. Egiten den lan-motaren ondorioz etortzen da sasoikako langilea izatea. Jatorri geografikoaren eta aldi baterako edo modu iraunkorrean murgildurik daudeneko lan-eta gizarte-arazoaren ondoriozkoa da, ordea, immigratzaile-izaera.

Sindikatuak, enpresaburuen erakundeak eta gizarte-ekimeneko erakundeak ahaleginak egiten dituzte urteetan zehar esku-hartze ofizialik ez izatearen ondorioz sorturiko sistema gaitzesgarriko faktore oinarrizkoak antolatzeke; izan ere, egiazko esklabutza-egoerak agertu dira, hertsiki lan-harremanei dagozkien arrazoiengatik (hala nola lanaren iraupena, soldatak, ordaintzeko moduak, akordio kolektibo edo pertsonalak errespetatzea, eta, kontratuak hobeto antolaturik egon direnean, enpresaburuek langileei ostatu emateari dagokionez euren kontratu-betebeharrak betetzea). Baita ere, sasoikako langileen kolektibo batzuen “kulturrei” dagozkien arrazoiengatik, baina ez soilik horiengatik.

Sindikatuak eta enpresaburuen erakundeak administrazioarentzat eta administrazioarengatik eginiko proposamenetako batzuek agerian uzten dute urtero kontrolpetik ateratzen den egoera bat konpontzeko ahalegin hori. Era berean, adostasun handia erdietsi da orain arte alderdi guztien artean. Horregatik, guztien arteko soluzio eraginkorragoak bilatzea, nahiz eta konplexuak izan, nahitaezkoa da, eta erakunde horiek inplikazio eta presentzia bera izatea lortu behar du, nahi gabe sasoikako langileen eskubideetan desorekak ez eragiteko, eskubide horiek ekonomikoak nahiz sozialak izan.

Beste autonomia erkidego batzuetan enpresaburuek dituzten betebeharrak betetzeagatik eta sasoikako immigratzaileen eskubideak errespetatzeagatik oro har emaitza onak izan dituzten esperientziak Nafarroan aplikatzea prozesu motela da, eta, betiere, arazoarekin zerikusia daukaten guztien parte-hartzea beharrezkoa du.

Aplikaturiko den behin betiko ereduak –Lleida, Gasteiz, Mendabia...– garrantzi nabarmena izanen du lan-arloan, langileen eta enpresaburuen arteko harremana orokorki antolatzea ahalbidetuko baitu, langileek enpresaburuengandik edo administrazioengandik eskuraturiko etxebizitzareduari dagokionez; baina badauka sindikatuizaera nabariko den faktore erantsi bat; alegia, habitatari buruzko kontratu-baldintza horiek kontratuetan jasotako soldata sozialaren osagai gisa betetzearena. Sindikatuak zehaztu egin behar dute ereduaren aplikazioan ildo horretatik zein espazio bete nahi duten, baina pertsonen oinarrizko eskubideetako batzuek sindikatuizaera garbia ere badaukate, eta, ikuspegia aldatu arren, xede berbera dute.

“Sasoikako langileen mahaia” izeneko arau-esparru bat sortu izanak, aldi baterako eskulana kontratatzeke prozesuak azkarrago bihurtzeko xedez sindikatuak hartu duten eginkizun aktiboak



eta, zergatik ez esan, legez kanpoko etorkinek kontratatutako izateko dituzten zailtasunek ere –halakoetan enpresaburuak zehapen zorrotzak izan ditzakete– sasoikako langile horien kontratazioan normalizazio handiagoa ekarri dute. Gai honetan UAGN, UGT eta CC.OO.ek eginiko lana eskerga izan da.

Abiapuntu gisa onartuz etorkinen joera lana bilatzea dela, eta atzerritarrei buruzko gaur egungo araudiak kontratazioa mugatzen duela, egiaz-taturiko ondorioa da badagoela nolabaiteko lan-  
eskaintza asegabea, langabezia eta lan-prekarietatea ere badauden arren. Hori horrela, sasoikako nekazaritza-lanetarako legez kanpoko etorkinak kontratatzen direla ere egiaz-taturik dago, eta logikoa da pentsatzea horretara joko dela aurrerantzean ere, “lan-merkatu” horretako baldintzak aldatzen ez diren bitartean edo nazioko Gobernuak immigrazio-arloan harturiko neurriak fruiturik ematen ez duten bitartean: eskulan-  
eskaintza egiazko langile-eskaerari egokitzea. Gaur egun, egoera alderantzizkoa da: legezko eskulana ez da behar adinakoa, eta lan-  
eskaintza, nekazaritzaren sektorean, antzekoa da kantitatearen ikuspegitik, baina dibertsifikazio handiagokoa.

Horrela, bada, UAGNk sindikatuekin eta bere bazkideekin ere bitarteko-eginkizuna betetzeak ezinbestekoa dirudi, eta ezinbestekoa izanen da, halaber, administrazioei proposamen oinarrituak egitea, eskulan-beharrizanak legeak ezarritakoaren arabera ase ahal izateko, eta horren ordez Erriberako herrietako plazetan edo “mafien” bidez –lan- eta gizarte-eskubideekiko axola gutxiakoz izaki– kontratatzeari ekin behar ez izateko.

Badirudi horixe izanen dela sektoreko sindikatuek eta enpresaburu-erakundeek etorkizunean berehalakoa izanen duten erronka nagusia.

Frogaturik dago sektoreko erakundearen borondatea ez dela nahikoa –ezta sasoikako langileei laguntzera etorri diren gizarte-ekimeneko erakundeena ere– sasoikako langile horien baldintza ekonomikoak, sozialak eta lanekoak berehalakoa hobetzea lortzeko.

Abiarazi diren udal proposamenak oso positiboak dira –adibidez, zenbait eremu erabiltzen uztea, edo, kanpamentuak instalatu ahal izateko dirulaguntzak lortzeko xedez, foru administrazioaren aurrean bitartekari aritzea–, agerian uzten baitute gaitzen hasia dela udalek sasoikako langileen errealitatearen aurrean zeukaten jarrera pasiboa; izan ere, udalek, sasoikako langileek euren lanak irauten duen bitartean jasaten dituzten gizarte- eta bizitoki-baldintzak ikusi arren, ez zuten ezer egiten, nahiz eta egoera horiek bertako

kaleetan gertatzen ziren. Alde batera utzirik jarra hori nekazaritza-arloko enpresaburu batzuek sindikatuen aurka eginiko ekintzei zeharkako laguntza ematea izan daitekeela –harrigarria inondik ere, udaleko arduradunei buruz hitz egiten ari baikara–, sasoikako langileen kolektiboen kulturari dagozkion arazoak ezin dira erabili aipaturiko esku-hartzerik eza zuzitzeko.

Arauz kanpoko eta udalek kontrolatu gabeko kanpadendak sarritan ikusi izan ohi dira, orain arte, sasoikako lanetan, eta enpresaburu-elkarte nahiz sindikatuek eginiko ahaleginak eraginkorrak izanen dira arlo horretan arduradun diren administrazioekin batera koordinatuz egiten direnean bakarrik (udal administrazioa eta Foru Komunitatekoa), honako arlo hauetan:

– Osasun-arloko zerbitzuak eta ikuskaritza;

– Ordena publikoa: kanpatzeko debekuak errespetaraztea, kanpadendak enpresaburuarekin alde aurretik adosturiko eremuetan jartzea, eta kanpaleku horietan behar bezalako bizikidetasuna mantentzea;

– Lan-ikuskaritza: egin beharreko ekintzek kontratazio-sistemen ikuskaritza soila baino haragato iritsi behar dute (ikuskaritza horren ardura, gaur egun, sektoreko enpresaburuaren erakundeek eta sindikatuek daukate).

– Hezkuntza, nahiz eta eskolatzearen jarraipena denbora-epe laburretan egitea zaila izan. Sistemak ezarri behar dira adingabe zaharrenek kontratuko titularrei lagundu edo haiek ordeztzeko xedez behin-behineko ikastetxea uztea eragozteko.

Sektorea hobekien ezagutzen duten erakundearen parte-hartzearekin, dauzkaten erantzukizunak eta beste batzuk eskuratzen dituzten udalekin eta, legez behartuta dagoen gaitetan, foru administrazioaren parte-hartze aktiboarekin, sasoikako langileen lana arautzeko premia politikak erabiltzeak zergatia galtzen du, eta egokiagoa litzateke sasoikako lanaren arloan hiru urteko esku-hartze sozialeko plan bat taxutzea.

Plan horretan sartu beharko lirateke, NUPeko txostenetik abiatuz Gobernuak taxuturikoaren ildotik, sektoreko lan-araubidea egiteko beharrezkoak diren neurri koordinatuak; urteotan egoerari aurre egiteko ekimen gisa harturiko neurriak eta horien zuzenketak, egiturazkoak izan daitezkeen (batik bat, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan); sektorean nolabaiteko zeresana daukaten hiru administrazioetako bakoitzak (Estatukoak, Foru Komunitatekoak, Udaletakoek bakoitzak bere aldetik nahiz besterekin batera antolatutako zerbitzuen

bitartez) hartu behar dituen eskumenak eta erantzukizunak argiro antolatzea; eta kasuan kasuko kapitulu ekonomikoko babesa. Neurri horiek hiru urtean behin aplikatzeak jarduera ekonomiko garrantzitsu honetan normaltasun handiagoa erdiestea ahalbidetuko luke, eskulanaren jatorriak eta immigrazioaren lege-esparru orokorrak epe horretan jasaten duten bilakaera ezagutu bitartean.

Ekintza horiek, hiru urteko plan hori, Nafarroako Gobernuak taxuturiko Etorkinak gizarteratzeko Planaren etorkizuneko garapenean txerta litezke. Plan horrek, orokorra denez gero, sasoikako nekazaritza-lanak egiten dituzten etorkinengan (iraunkorrak izan nahiz ez) zuzeneko eragina daukaten neurriak jaso ditzake.

Lagungarria litzateke administrazioak, enpresaburu-erakundeek eta sindikatuak formula bat aztertzea herrietan egon daitezkeen etxebizitzak aprobetxatzeko xedez. Haietan ostatu hartu ahal izateko egokituak izan daitezzen sustatu beharko litzateke, eta, horretarako, nekazariei laguntzak eman beharko litzazkieke, euren zergetarako kenkari gisa edo etxebizitzak zaharberritzeko berariazko eta zuzeneko laguntzetarako programa gisa; betiere, langile horientzako bizitokiak izateko erabiltzen badira.

Halaber, berariazko kolektiboentzako kanpaleku-ereduaren berrikuspenean sartu beharko litzateke karabanarik ez daukaten (edo hori ohiko bizilekutzat ez daukaten) langileentzako behar bezalako bizilekuak instalatzea, sasoikako langile etorkin eta nazionalentzako aterpeak eraikiz.

#### ETXEKO ZERBITZUA

Etorkinen artean nolabaiteko lan-banaketa antzematen ari da, euren jatorrien arabera, eta baita emigratu aurretik zeuzkaten hasierako kontaktuek horretarako "aukera" eman izanaren ondoriozkoa. Datu hau nabarmenagoa da emakumezkoen eskulanaren kasuan, batez ere etxeko zerbitzuan baitihardu; bereziki, Latinoamerikako kasuan. Esanguratsua da etxeko zerbitzuaren kontzeptu tradizionalak agertzen duen gorakada, urte askotan eredu ezberdina, bertako biztanleen ordukako lanean oinarriturikoa, garatu ondoren. Horrela, bada, ikuspegi tradizional hori berreskuratu da; ziur aski, ildo gizakoiago batetik (pertsonekin adinduei edo eriei laguntzea), baina ezaugarri berberetakoa, lan-baldintzen esparruan, legeak ezarritakoaren azpitik baitaude: bertako langileen

soldata baino baxuagoa eta, oro har, sindikatuen zeresanaren aldetik berez demokrazia aurreko Espainiakoak lirakeen lanaldi eta lan-baldintzak.

Administrazioak ez du jarduera-mota hau kontrolatzen, zeren eta, etxebizitza partikularrak diren aldetik, epailearen baimena izanik bakarrik esku hartu ahalko bailuke. Bestalde, Elizbarrutiko Caritas bezalako erakunde batek bitartekotza-zereginak betetzen ditu etxeen eta etorkinen artean. Eta, horrekin batera, sektorea hobeki arautu dadila lortzeko ekimenik ez dago, sindikatuetatik sorturiko gizarte-ekimeneko erakundeen abegi-zerbitzuetatik alarma-oihuak bideratu izan diren arren.

Izan ere, sektoreak pairatzen duen arreta-gabezia kronikoa larriagotzen ari da sektore honetan etorkinek eginiko legez kanpoko lana dela-eta, gizarte-ekimeneko entitateek salatzen dutenez.

Enplegu-emaileen ustezko abantaila ekonomikoak zenbait agentzia eta "etxeko lanaren esparruko bitartekariak" izenekoak sortarazi ditu. Bai batzuek bai besteek Foru Komunitatetik bertatik eta mugakide diren beste batzuetatik lan egiten dute; horietatik, aipaturiko agentziek etorkinak bidaltzen dizkiete sindikatuari, euren administrazio-egoera arauzkotzeko bidean laguntza emateko xedez.

Etxeko zerbitzuaz aritzean, garrantzitsua da soldatekin zerikusia daukaten alderdiak azpimarratzea. Soldatak, "oro har, ez dira oso handiak, hilean 114.000 pezeta, batez beste, abegi egiten duen populazioari dagokionaren erdia baino gutxiagokoa. Harrigarriena da soldata hori lortu ahal izateko egin beharreko ordu-kopurua" (12).

Etorkin diren etxeko langileek, batez bestek, espainiarrek kobratzen dutenaren erdia kobratzen dute, egunean 18 orduko lanaldiak izanik eta, kasurik gehienetan, atsedeen-egunik izan gabe.

Bestalde, aipatzekoa da Lan Ikuskaritzaren jarrera, zeina baldintzatuta baitago, solaskide batzuek diotenez, eskulan-beharrizanaren, sektorearen arauzkotzerik ezaren eta zuzenbidearen ikuspegitik etorkinek daukaten egoera nahasiaren ondorioz.

#### LAN-BALDINTZAK

NUPeko txostenean aipatzen diren datuek bigarren irakurketa bat merezi dute, etorkinen lan-baldintza orokorren ikuspegitik; izan ere, pertsona horien eskubiderik oinarritzkoenak kasurik gehie-

(12) NUPeko txostena. 2001.

netan, sistematikoki ez bada, urratzen direla agerian uzten baitute.

- Kontratazioak arauz kanpokoak dira; lanaldiak, gehiegizkoak; ordainsariak urriak dira, eta soldataren araberako bazterkeria eta esplotazio-kasuak ere lan-merkatuaren esparru honetako errealitateak dira.

- Nolokotasunaren ikuspegitik, arauz kanpo ibiltzeak lan-eskubiderik gabe uztea eta era guztietako abusuen menpe biziartzea ekartzen du ondorio gisa. Urte-amaieran, Europar Batasunetik kanpoko langileen erdiak baino gehiagok arauz kanpoko lana zeukaten. Kasurik gehien-gehienetan, arauz kanpo egote hori lan-baimenik ez izatearen ondoriozkoa zen, baina kasuen % 7tan, arauz kanpoko kontratazioa langile baimendunekin egiten zen, bereziki etxeko zerbitzuaren esparruan.

- Lanaldiari dagokionez, nekazaritzan eta etxeko zerbitzuan egoera gehienak arauz kanpokoak dira. Langile etorkinen ia erdiek astean 40 ordu baino gehiagoko lanaldiak zeuzkatela zioten.

- Lau etorkinetatik batek lanbide arteko gutxieneko soldata baino dirusarrera gutxiago dauzka hilean. Kasu batzuetan, egoerak begi-bistako esplotaziokoak izaten dira.

Gizarte-ekimeneko erakunderen batek salatzten duen "sasi-esklabutza" egoerak badauka larriago egiten duen ezaugarri bat; alegia, horrelako egoerak, bakanak ez izaki, lanaren sektorean, oro har, atzerakada bat eragiten ari direla, etorkinen kaltetan, eta prozesu horretan arauz kanpoko kontratazioaren baldintzek kasuan kasuko sektoreko langile ororen baldintzetan eragin dezaketela

## LANGABEZIA

2000. urtearen amaieran, Europar Batasunetik kanpoko 3.000 etorkin baino gehiago zeuden langabezian. Horrek % 27ko langabezia-tasa egiten du. Tasa hori, une horretantxe populazio abegiegileak zeukana (% 5,7) halako bostekoa da: Nafarroako bost langabetutik bat Europar Batasunetik kanpoko etorkina da.

NUPeko txostenaren egileen aburuz –txosten hori oinarri gisa erabili du Gobernuak, etorkin gizarteratzeko plana egiteko–, errealitateak gezurtatu egiten du lan-merkatuak langile berriak bereganatzeko gaitasuna jadanik gaintu izanaren ustea. Gainera, iritsi ondoko langabezia koiunturazkoaz edo langintza batzuen sasoikako egituraz gain, agerian uzten du badagoela "langabezia bazterkeriazale bat, araurik eta babesik gabeko egoera batean aurreiritziak eta produktibitateari

edo otzantasunari buruzko irizpide objektiboak nahastuta erabiltzen dituen langileak hautatzeko".

Langabezia hori nagusiki gizonezkoena da; gehien jotzen ditu oso gazteak direnak eta 34 urte baino gehiago dituztenak, eta, horien artean, Aljeriako etorkinak (10etik 6 langabezian zeuden urte-amaieran). Emakumezkoen langabezia, ordea, handiagoa da, bereziki, Afrikako emakumeen kasuan eta landa-eskualdeetan bizi direnengan.

## ESKOLATZEA

Haurren hezkuntzak garrantzia dauka etorkinnek balioesten dituzten gauzen artean. Etorkinen 6tik 15 urtera bitarteko seme-alaben % 99 eskolaturik daude. Eskolatzeko indizea 3-5 urte bitartean da baxuen: adin horretan, haurren % 8 ez doaz eskolara (horietatik, gehienak hiru urteko haurrak dira). Euren gurasoen lan-mugikortasuna eskoladesoreka eragiten duen faktore garrantzitsu bat da; bereziki, sasoikako langileen kolektiboko seme-alaben artean, haiengan uztartzen baitira eskolan ematen dituzten denbora-epe laburrek ekarritako zailtasunak eta haurrak eskolara joanaraztea (aldi baterako besterik ez bada ere) haien gurasoen eginkizuna izan dadila lortzearen zailtasuna.

Hain zuzen ere, 13 eta 15 urte bitarteko adingabeko batzuek (nagusiki, magrebtarrak) haien gurasoekin bidaiatzen dute, eta beraiekin batera joaten dira lanera, eskola utzita. Egoera hori bereziki gertatzen da uzta-bilketa garaian, sasoikako langileei laguntzen dieten 10 eta 15 urte bitarteko haurren artean. Halaxe gertatzen da Nafarroako herriren batean udal-ekimenez instalatu diren kanpalekuetan ere.

Komunitate osoan, etorkinen 1.659 seme-alaba matrikulatu dira, guztira 2000-2001 ikasturte honetan; alegia, iazkoan baino 200 gehiago, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak emandako behin-behineko datuen arabera. 1.659 ikasle horietatik, 1.287k haur eta lehen hezkuntzan dihardute, 362 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) daude, eta 10 inguru Batxilergoa egiten ari dira. Matrikulaturiko guztietatik, etorkinen 83 seme-alabak ez dakite gaztelaniaz. Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan guztira 307 etorkin zeuden eskolatuta 2000ko abenduan, eta gaztelaniaren ezagutza murrizta edo oso murrizta zeukaten, batez ere Maroko, Aljeria eta Portugalekoek (horiek guztira ikasle etorkinen ia ehuneko 50 osatzen zuten).

Eskolatutako adingabekoak lau multzoz osaturik daude: ijitoen etniako espainiar ikasleak, Hego

Amerikako ikasleak, zeinek espainieraz hitz egiteaz gain neurri batean gure kultura bera baitute; espainieraz ez dakiten eta kultura ezberdina daukaten ikasleak; espainieraz ez dakiten eta ezberdintasun kultural handirik ez daukaten ikasleak, batez ere Europako ekialdekoak direnak; eta espainieraz ez dakiten eta jatorri kultural ezberdinekoak diren ikasleak. Gehienak magrebtarrak dira jatorriz, eta musulmanak erlijioz.

Matrikulatuen guztizko kopurua bikoiztu egin da azken ikasturteetan, eta hazten segituko duela espero da, ikasturtean zehar jende gehiago matrikulatzeagatik; izan ere, etorkinen seme-alaba asko iristen dira ikasturtea jadanik hasia dagoenean.

Etorkinek euren seme-alaben hezkuntzarekiko jarrera positiboa izatea; eskolatzegaraian dauden adingabeak gero eta gehiago izatea; euren jatorri kultural ezberdinak; eta gure hizkuntza jakiteko dauzkaten zailtasunak: horiek guztiak direla-eta, etorkinen hezkuntzak badauka haren ikusmolde pedagogikoa bereganatuz bakarrik landu daitekeen alderdi bat, nahiz eta esparru horretako beharriak ez diren ikastetxe guztietakoak. Horrela, bada, irizpide egonkorak eta guztiei aplikatzekoak ezartzea garrantzitsua da, etorkinen beraien beharriaren ikuspegitik eta ikastetxeak Udalekin batera antolatu eta koordinatzeko beharriaren ikuspegitik ere, kulturartekotasun-printzipioa oinarri izan den estrategia bateratu baten barnean: alegia, kultura bakar bat transmititzearen ideia gainditu eta mundua ulertzen laguntzea, aniztasuna eta kohesioa indartuz. Helburu horrek abiapuntu izan behar ditu ikasleak ikastetxe batean eskolatu aurreko neurriak eta ikastetxeko antolaketa-eta curriculum-neurriak.

Nahiz eta azken bi urteotan bikoiztu egin diren etorkinen seme-alaba matrikulatuen kopuruak, herri batzuetako gizarte-zerbitzuek Hezkuntza eta Kultura Departamentuari eginiko gomendio eta eskaerei ez zaie erantzunik eman behar den garaian eta moduan, eta, haien iritziz, Hezkuntza Planak ez dira oraindik egokitu. Etorkizun hori planifikatu beharra hezitzaileek eta gizarte-langileek azpimarratu dute; haien zat, presakoa da jadanik planifikazio-saio bat egitea Nafarroako immigrazioaren joerak eta, arlo horretan, Espainiako agintariak eman dezaketen informazioa kontuan hartuz. Iritzi horretakoak dira, eta publikoki adierazi dute, Tuterako bigarren hezkuntzako lau ikastetxetako ordezkariak, zeinek nabarmendu baitute Gobernu Kanpoko Erakundeek eginiko lana, kontseilariak neurririk hartu ez izanaren ondoriozkoa.

Presakoa da hezkuntzaren planifikazioa egitea, Nafarroan immigrazioak agertzen dituen joerak eta arlo horretan Espainiako agintariak eman dezaketen informazioa kontuan hartuz.

Bestalde, ikasturtea hasi ondoren ikasle berriak sartzearen auzia mahaigaineratzen da ikasle etorkinen eta bertakoen arteko hezkuntza-aldeak gainditzeko ahaleginak egiten direnean. Saio horiek egiten dira ordutegiz kanpo edo bi irakaskuntza-lanak aldi berean eginez, eta, horretarako, dauden baliabideak besterik ez da erabiltzen. Halaber, irakasleen lan-esparrua aldatzea edo gaztelaniaz eta/edo euskaraz alfabetizatze berriazko plantilla bat sortzea proposatzen da. Plantilla hori kultura-bitartekotzako esparrura loturik egonen litzateke, eta, "Gaztelaniaz ikasteko gela" gisa, batzuek proposatzen dute ikastetxearen esparrukoa izan dadila, eta, beste batzuek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen esparrukoa, bitartekoaren figura edo zerbitzu horien esparru orokorra baliatzeko asmoz.

Erribera aldean zenbait ekimen gauzatu dira hezkuntzaren eta eskolatzearen arloan, eta horietan guztietan azpimarratzen da ikasle etorkinak hartzeko plan bat ezartzeak daukan garrantzia, ikasle horiei eskolara joaten hasteak eragiten dien astindua samurtzen laguntzeko, lehen neurri gisa. Ildo horretan, kultura arteko bitartekoaren figura berri ere komenigarri gisa azaleratzen da; batez ere, gaztelaniaz ez dakiten familiekin komunikazioa errazteko.

Begi-bistan dago ikasle etorkinak eskolatzeko eta horiek behar bezala integratzeko (bai gizartean bai eskolan) baliabide gehigarriak behar dituela. Beharri hori ezin da kostu ekonomikoaren ikuspegitik aztertu, baizik eta deserrotze-egoerei aurre egitearen eta gizarte-inbertsioaren ikuspegitik. Horregatik, gizarte-erakunde ezberdinen laguntza eta koordinazioa behar da. NUPen txostenak baliabide gehigarrien puntu hori jorratzen du, eta Gobernuak eginiko plan-proiektuak berak ere proposamen hori jasotzen du, oro har. Logikoa denez, beranduago hori zenbatetsi eta garatu egin beharko da.

Hasierako harrera eta egokitze-prozesua garrantzizkoak dira ikasle etorkinentzat (etorkinek eskolatzeari eginiko lehen hurbilketan haien gidari gisa aritzeak eta ikasle etorkinak ikastetxe bakoitzean metatzea saihesteak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzat izan beharko lukeen interesaz gain), eta, ildo horretan, egokitze-aldi horrek, ikaslea ez ezik, bere familia ere hartu behar du barnean. Esparru honetan, guraso elkarteek bete beharreko eginkizuna funtsezkoa da ikaslearentzat, herri-

ko ikastetxe- eta gizarte-bizitzan ikasleen familiekin lankidetzan aritzen baitira.

Hori dela-eta, Barne Ministerioak gaur egun irekita dauden arauzkotze-prozesuak amaitu bitartean, garrantzitsua da ikastetxeek eta udaletxeek harreman-bideak sortu ahal izatea etorkin horiekin eta etorkinen artean; alegia, kasuan kasuko administrazio-baimena (egotekoa edo bizitzekoa) oraindik ez daukaten etorkin horiekin, halako moldez non euren herritar-eskubideen mugatze hori oztopo izan ez dadin eta, aitzitik, euren seme-alaben eskolatzeari indartu dadin euren gurasoek herriko elkarte-bizitzan murgildu eta parte hartzearen ondorioz. Ikuspegi horretatik, ikastetxea gizarteratze-agente bat da, ikasleentzat ez ezik, familientzat ere. Bide hau aprobeztatzeak garrantzia dauka, eta beharrezkoak diren baliabideak eman behar zaizkio.

Bestalde, ikasle horiek eta euren familiek derri-gorrezkoa ez den hezkuntza (haur hezkuntza, lanbide heziketa, batxilergoa, helduen hezkuntza iraunkorra eta Unibertsitatea) eskuratu eta laguntza-sistema publikoetan parte hartzea etorkizunera begira eginiko inbertsio garrantzitsua da, Komunitateko bizikidetasunaren eta gizarte-garapenaren alde.

Postua esleitzeko irizpideek zentzuz orekaturiko banaketa lortzeko helburuaren arabera beharko dute izan, eta 25 haur matrikulatu baino gehiagoko eskola-taldeak saihestu beharko lirateke. Horietako talde bakoitzean, bi postu gorde beharko lirateke ikasturtea jadanik hasita dagoenean matrikulatu nahiko luketen balizko ikasle etorkinentzat, baina, betiere, ikasle etorkinen, gutxiengoetakoen eta beharizan bereziak dituztenen batura talde osoko kide-kopuruaren % 20 baino handiagoa izan ez dadin sailatuz.

Puntu honetan, komenigarria dirudi etorkinen arloan diharduten ikastetxe publikoek eta itunduek, udalek eta Gobernu Kanpoko Erakundeek elkarren artean ezartzea irizpiderik egokienak etorkin adingabeak eskolatzeari arloan, Nafarroako Gobernu Eskolatzeko Batzordearekin erabakitako proposamenetatik abiatuz.

## GIZARTE ZERBITZUAK

Etorkinen artean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen erabilgarritasunaren ezagutza indartu beharri buruzko adostasuna dago. Izan ere, zerbitzu horiek behar baino gutxiago erabiltzen dira, haien benetako laguntza-ahalmena kontuan izanik; bestalde, haien ordezkari bideak erabiltzen baldin badira, horrek esan nahi du baliabideak bikoiztu edo hirukoiztu egiten direla, eta horrek zatikatu egiten

du laguntza-eginkizuna eta zerbitzu guztiek batera daukaten eraginkortasuna. Aldi berean, udalei eskatzen zaie zorrozki bete ditzatela zerbitzu horiekin daukaten konpromisoak, zeinak nagusiki ekonomikoak baitira, eta Mankomunitateentzat arazo kolektiboak ebazteko protagonismo/eskumen gehiago eskatzen da. Iritzi orokorraren arabera, Mankomunitateen antolaketa ona da ikuspegi honetatik, bitarteko urriak daukaten arren.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzu hauek protagonismo handiko eginkizuna daukate harrera-prozesuari dagokionez. Berezi aipagarria da emakumeen kolektiboari eta hizkuntzarengatik nahiz arazo pertsonalengatik harreman-gaitasunik txikiena daukaten herritarrei begira daukaten zereginna. Premiazkoa da inplikazio handiago hori honako hauei buruzko lehen informazio orokorra emateko: hezkuntza- eta osasun-erakundeetan sartzeari, zenbait gizarte-programatan parte hartzeari, dokumentazioa eta administrazio-arauzkotzeari, Espainiako eta Nafarroako errealitateari buruzko prestakuntza orokorra, aldi baterako egonaldi-erako harrera-zentroak, etorkin bereziki babesgabeentzako laguntza. Halaber, aldi baterako egonaldi-erako zentroen eta harrera osagarriko postuen sare bat kudeatzeko edo udalek –bestelako laguntzen bitartez– ostatu emateko eta lehen harrerarako ezartzen dituzten postuekin koordinatzeko.

Ezinbestekoa dirudi zerbitzu horiek enplegu-zerbitzuekin eta sektore honetako laguntza-erakundeekin konektaturik egoteak, etorkinen eskubide ekonomiko eta sozialen multzoari babesa emanen dion sare bat eratu ahal izan dadin.

## KULTUREN ARTEKO BITARTEKOTZA

Edozein kasutan ere, garrantzi bereko beste neurri batzuk, zeinak zenbait txostenetan proposatuak izan diren, bai eta erakunde honek izan dituen bileretan ere (hala nola kulturarteko hezkuntzari buruzko informazio-bilketa, jatorrizko herrialdeko osasun- edo eskola-ohiturak, edo etorkinek Espainia eta Nafarroako hezkuntza-sistema ezagutzea), etorkinaren ingurunean egin beharreko lanaren osagaiak dira, eta, ikuspegi ezberdinak eskaintzen dituen arren, lan garrantzitsua da; lan horrek giza eta gauza baliabideak beharrezkoak ditu.

Etorkinen beharizanen eta haiei euren bizitzako arlo ezberdinetan laguntza eman behar dieten guztien beharizanen ikuspegitik immigrazioaren errealitateari aurre egin beharri buruz iritzi ezberdinak sortu dira, eta, horren ondorioz, kome-

ni da garrantzi bereziko "ekintza-tresna" batzuei buruzko gogoeta egitea.

Etorkinei laguntza ematen dietenen artean zenbait sindikatu eta gizarte-ekimeneko entitate egotea, edo sasoikako etorkinen kolektiboentzako politika koordinatuak egiteko xedez administrazioarekin berariazko akordioak egin izana, orain arte gauza garrantzitsuak izan dira, ekimen partzial gisa, helburua eta protagonistak zeintzuk diren kontuan hartuz. Nafarroan immigrazioak agertzen duen errealitateak arreta lehentasunez eskubide ekonomiko eta sozialen multzora bideratzera behartzen du, eta, aldi berean, entitate ezberdinak gehiago koordinatzera, helburu nagusia izanik eskubide horien defentsan eraginkortasuna lortzea eta etorkinen populazio orekatu, oso produktibo eta Komunitateko lan-sisteman txertaturiko batek Nafarroako gizarteari ekartzen dizkion onura ekonomikoak.

Une honetan, gogoeta-punturik garrantzitsuenak da etorkinengandik hurbilen dauden politika horiek guztiak bildu eta zenbait entitate eta administrazioen ahalegin koordinatuekin lotuko dituen elementuari buruzko definizioa.

Beste administrazio batzuk, autonomietakoak eta toki-erakundeetakoak, antzeko ondorio batera iritsi dira, immigrazioaren errealitatea eta administrazio horien herritarrek aldiro beste lurralde batzuetara emigratzen dutenean bizi duten errealitatea ere aztertu ondoren. Guztiak ados daude jatorriko herrialdean edo Nafarroara iritsi ondoren ere laguntzak ematea komenigarria dela, eta, era berean, egokitzen jotzen dute kulturen arteko bitartekoaren figura, kohesio-elementu egonkor eta ez borondatezko gisa, kultura ezberdinen arteko loturari eta etorkinen herritar-eskubideei bultzada emateko. Tankera ezberdinetakoa izan daitekeen arren, kulturen arteko bitartekoa litzateke egin behar diren ekimen edo politika ezberdinen bateratzailea, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen solaskide gisa jardunen luke udalekin.

Figura horren menpekotasun funtzionalari buruzko adostasuna apalagoa da. Puntu honetan, gogoratu behar da, alde batetik, udalek immigrazioaren aurrean nahitaez bete behar duten eginkizuna, zeina, argi eta garbi, gaur egun betetzen ari direna baino aktiboagoa baita. Baina, era berean, Espainia osoan udal zerbitzuak finantzatzeko sistemak dauzkan problema jadanik kronikoak alde handiz gainditzin dituen errealitate bati aurre egin ahal izateko administrazioen artean egin beharrekoak diren akordioen behar gorria dago.

Kontuan izanik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bizikidetasuna (zerbitzu horiek etorkizun hurbilean

zeregin garrantzitsua izanen dute); haietan parte hartzen duten udalekin nahitaezko koordinazioa; eta immigrazioaren esparruan diharduten erakundeekin daukaten harremanaren erabilgarritasuna, komeni da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen esparru hori izan dadila, hain zuzen ere, kulturen arteko bitartekoak bere eginkizuna autonomiaz betetzeko esparrua, Zerbitzu horien eginkizun aipagarri gisa, baina behar diren egitura eta bitartekoak kulturen arteko bulego batean bildurik edukiko dituela.

Bulego horrek orientazioa emanen lieke etorkinei, haientzat gizarte-izaerako udal-erreferentzia izanen litzateke, eta gertakari arrazistak eragozteko eta etorkinen gizarteratzea ahalbidetzeko sentsibilizazio-kanpainak taxutuko litzuzke.

Halaber, bulego hori lanabes izan liteke etorkinari osoko laguntza emateko udal planetarako. Horrelako planak Espainiako zenbait herritan egin dira; udalak egin eta taxutu izan ditu, gizarte-ekimeneko entitateekin eta sindikatuarekin lankidetzan.

Horrela, udalak gizarte-laguntzaren arloko eginkizunak bete ahalko ditu horrekin batera beselako udal zerbitzuak blokeatu gabe; erakunderik aktiboek euren arreta bideratu ahalko dute etorkinen bizitzatik neurri handienez dagozkien esparruetara –sindikalak, zuzeneko gizarte-laguntza...–; ikastetxeek haien lankidetzan izan ahalko dute etorkinen kolektiboekin bitartekotza-lanak egiteko bidea ematen duten laguntza-programak egiteko; eta, aldi berean, etorkinek erreferentzia argi, egonkor eta eskudun bat izanen dute. Azkenik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak berak ere indartuta geldituko dira, eta hobeto erabiliko dira, orain nola taxututa dauden kontuan izanik.

## GIZARTERATZEA

Etorkin iritsi berriak Nafarroan sei hilabetez egon ondoren bakarrik hasten dira Espainiako nazionalitatea daukaten herritarrekin adiskidetasun-harremanak eratzen; ziur aski, horiek ere elkarren arteko harremanak dauzkate. Epe luzean, nazioko eta nazioarteko (espainiarrekin) adiskide-sareen berdintasuneranzko joera gero eta argiago bilakatzen da.

Elkartegintza oso apala da etorkinen artean (populazio abegi-egilearen elkartegintza-maila baino lau aldiz baxuagoa), eta, edozein kasutan, ez da gizarte abegi-egileko erakundeak zuzendurikoa (salbuespen txiki bat da sindikatuen kasua). Sindikatuarekin afiliatzen direnen kopurua langileen multzo osokoaren laurdena izan daiteke.

Nazioen arabera, aljeriarrak dira parte-hartzerik handiena agertzen dutenak, Afrikako gainontzeko lurraldeetako kolektiboak gain. Parte-hartze-

rik eta elkartegintzarik apalena agertzen dutenak ekialdeko Europakoak dira, eta, ondoren, ekua-dortarrak.

Gizarteratze-adierazle batzuen bilakaerak lagun espainiarrekin harreman-maila handia dagoela adierazten du (% 70etik gorakoa), halaber, agertzen du egonaldia egonkortzen den heinean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara gero eta jende gehiagok jotzen duela, motelki bada ere, eta jende gehiagok izen ematen duela elkarteren batean 5 urteko egonaldia gainditu ondoren (dena den, kopuruak oso apalak dira, % 30 baino baxuagoak).

NUPen txostenaren arabera, elkarte-jarduera urriaren zergatiak, ziur aski, lan-denborak ezartzen dituen mugak eta osaketa demografikoa (populazio aktiboa izatea) dira. Autoreen ustetan, gizarteratze-prozesua positiboa baina motela da.

Gizarte-ekimeneko entitateen presentzia erabakigarria izan da gizarteratze-mailei dagokionez; izan ere, herritar horiei harrera egitean funtsezko eginkizuna bete dute. Etorकिन % 5ek bakarrik ez dituzte ezagutzen, eta ezagutu arren erabili ez dituztenak 10etik 1 bakarrik izan dira. Aipaturiko entitateak hauexek dira, Nafarroan bizi diren etorkinen multzoan daukaten eraginaren hurrenkerearen arabera: ANAFE-CITE-CC.OO, Caritas, UGTren Gida Zentroa, Gurutze Gorria eta SOS Arrazakeria.

Bost entitate horiek Nafarroan dauden etorkinen % 85 hartu dituzte, eta haien presentzia erabakigarria izan da etorkinen harreran eta motelak diren arren aurrera doazen gizarteratze-prozesuetan.

Entitate horien jarduna deigarria da ekimen ofizialik ezaren aldean, bai etorkinei harrera egiteari dagokionez baita integrazio-bitartekoak abiarazteari dagokionez ere; izan ere, gizarte-ekimeneko entitateek ematen dituzten zerbitzuak finantzatzea erabaki da, eta, horrela, etorkinentzako zerbitzu horien gaineko erantzukizuna ere entitate horiei ezarri zaie. Administrazioak ihes egin nahi dio immigrazio-gaian duen zuzeneko erantzukizunari, eta hori, bai araukoturiko etorkinei eta bai legez kanpokotzat jotzen dituenek dagokionez, nahiz eta horiek guztiek neurri handiago edo txikiagoan pairatu euren etorkin-egoeraren ondorioak.

## BEREIZKERIA

Bereizkeria egon badago, eta egiturakoa da, subjektiboa baino. Gizarte zibilaren baitan administrazio publikoetan baino garatuagoa dago, eta batez ere afrikarrak ukitzen ditu <sup>(13)</sup>.

Bereizkeria-prozesuak batez ere gizarte zibilaren baitan gertatzen dira; Estatuko administrazio publikoak, ordea, tratamendu berdinzaleago bat egiten duela ematen du (halaxe dagokio bere araubideari). Hala ere, Nafarroan dauden administrazio publikoek gagozkiela, bi bereizkeria-mota daudela esan behar da: herrialde batzuk beste batzuen kaltetan hautatzea bereizkeria da azken horietakoak diren etorkinentzat, nahiz eta besteak "egokiagoak" izan daitezkeen dagoen lan-eskaintzako eginkizun zehatzak egiteko, ofizialki nahiz ez-ofizialki. Bestalde, "egokitasun" baldintza berak bete ez arren eginkizun horiek egiten dituzten kolektiboentzat lan-baldintzen ikuspegitik ondorioztatzen den bereizkeria; izan ere, eginkizun oso zehaztuta aritzeko zuzeneko lan-eskaintzak ez du Nafarroan bereizkeriarik egiten.

Halaber, foru administrazioak etorkinekin harremanik ez izatea (erantzukizun hori erabat eskualdatzen die udalei edo gizarte-entitateei) pasibotasunaren bidez eginiko bereizkeria da, gizarte-ekimeneko entitateei eta udalei helarazten baitzaie erantzukizuna, haien daukaten interesa, prestaketa, ahalmena eta eginkizuna betetzeko bitartekoak kontuan izan gabe.

Gizarte zibilari dagokionez, Parlamentuaren ekimenez berriki egin den ikerketak azaltzen du bertako biztanleak Nafarroan bizi diren etorkin guztiak araukotzearen alde daudela (% 75 baino gehiago), arazo hau samurtzeko bide gisa. Alabaina, etorkinek Nafarroako herritarren ondasun eta zerbitzu berak eskuratzeari buruz nahiko hedatuak dauden beste jokabide batzuekin kontraesan dago gehiengoaren jarrera hura. Hain zuzen ere, etxebizitza eta lan-merkatua dira etorkinentzat benetako bereizkeriarako esparrurik handiena.

Datu horiek nagusiki NUPen txostenetik atera dira, eta etorkinek Nafarroan gizarteratzeko bizi duten egoeraren berri ematen digute. Halaber, fenomeno gaur egun den bezala eta etorkizunera begira ere ulertzeko gogoeta batzuk ahalbidetzen dituzte, eta, horrela, gizarteratze hori gauzatzeko komenigarritzat jotzen diren neurriak abiarazteko bidea ematen dute.

(13) NUPeko txostena. 2001.

Gizarteratzea eta berdintzea gauza bera ez direla dioen irizpideari buruz adostasun orokorra dago. Gizarteratzeak posible egiten du eta sustatzen du herritarrek gizarte-sistema batean parte hartzea; sistema horretan euren identitatea aldatu gabe sartzen dira, eta sartu nahi duteneko zibilizazio garatuaren ezaugarriak bereganatzen dituzte, norik bereak bailiran hartzen ditu. Gizarteratze horrek bi alderdiak aberasten ditu; hori eztabaidaezina da, eta ezin ukatuzko garrantzia duen balio bat da kontzeptu antitetikoa, bazterkeria, ulertu, zaindu eta arbuizatzeko.

“Immigrazioaren fenomeno” deritzona urteetan zehar gai konplexutzat jo izan da: fluxuen zuzendaritza eta kontrolari buruzko alderdien eta etorkinen gizarteratzeari buruzko alderdien artean tratamendu orekatua eskatzen zuen arazo gisa ulertzen zen (14). Fluxuei buruzko datuen eta haieran sarturiko pertsonen (alegia, etorkinen) egoeraren arteko desorekari buruzko kezka horren hasapenak ez du egiazko jarraipenik izan; ziur aski, 1997tik aurrera gertaturiko desoreka askoz ere handiagoaren ondorioz. Urte horretan izugarri igo ziren Espainiara etortzekoak ziren etorkinei buruzko aurreikuspenak, eta horrek mugatu egin du egoera hori pairatzen duten subjektuen (hain zuzen ere, etorkinen) gizarte-baldintzei buruzko eztabaidarako esparrua.

Ziklo ekonomikoek immigrazioan daukaten eragina argia da, eta begi-bistakoa da errealitate horrek bere barne-erritmoak ere badauzkala (arazkotzeak, hazkuntza demografikoa, nazionalizazio-tasa...). Etorkinen beharrianen eta harrera-ahalmenaren arteko doikuntza (edo tirabira) arduradun politikoen egokitu ahal dute eta egokitu behar dute, halako moldez non fluxuetan “eragite-*ra*” bideraturiko ekintzak errealitate ezagun eta egiazko batetik abia daitezen, eta harrera-ahalmen hori modu positiboan bitartekoen arabera izan dadila, eta inoiz ere ez jarrera pertsonalaren arabera; hau da, aterpe-emate hutsa (hala gerta daiteke sasoikako etorkinen lanaren kasuan) iraunkorki gizarteratzeko estrategia bihurtzea.

Gizarteratzea prozesu luze bat da, etorkinek euren eskubideen (eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen) osotasunean parte har dezatela lortzeko xedea duena, betiere elkarrekiko errespetu eta onarpen giroan. Horregatik, eta immigrazioa geure ekonomietako eta geure garapen sozial eta kulturaletako egiturako elementu gisa finkatzen ari

denez, Nafarroako Gobernuak eginiko Gizarteratze Planerako proiektuan jasotzen den herritar horien gizarteratzeari buruzko eztabaida publikoari behin betiko eta berehalakoan ekin behar zaio, ez dadin gerta gobernuek migrazio-politikaren arloan agertu ohi duten inprobisazioak eta irizpiderik ezak eskubideen babeserako sare ezinbesteko hori azkartasunez taxutu eta ezartzeko eginizuna oztopatzea.

Gizarteratze-prozesu hori gizarte abegi-egile osoak eta etorkinen kolektiboak (bere erakundeen eta parte-hartzerako ireki behar zaizkien bideen bitartez) gauzatu behar dute. Administrazioek guztien eskubideen errespeturako esparru bat sustatu behar dute, tinkotasun eta nekaezintasun berberaz, eta bizikidetasuna, norberaren aurrera-bidea eta elkar ezagutzea ahalbidetzeko bitartekoak ezarri behar dituzte. Bizikidetasunaren aurrean jarrera axolagabea edo soraioa izatea ezkutuko xenofobia-mota bat baizik ez da.

## OSASUNA

Etorkinek osasun-laguntzarako eskubidea daukate, herritar guztiei horrelako zerbitzua ematen zaien egoera batean. Etorkinen sektorean eragiten duten legeek konstituzio-eskubide horren indarra berretsi dute etorkinei aplikatzeari dago-kionez ere.

Baina osasun-laguntzaren hedapen horrek laguntzari dagokiona konpontzen duen arren, hankamotz gelditzen da etorkinen kolektiboak eta, bereziki, emakumeek daukaten hobetze- eta prebentzio-beharrianen ikuspegitik. Izan ere, emakumeek genero-berezitasunak daukate (kontrazepzioaren arloko gaiak, famili planifikazioa, aldiroko osasun-azterketak), eta horiei ez zaie behar bezalako arretarik ematen, osasun-baliabideak ez direlako behar bezala erabiltzen eta fakultatiboan aginduei jarraitzen ez jakiteagatik; horren zergatia, ziur aski, hizkuntza- edo kultura-arazoaren ondorioz sortzen diren ulermen-zailtasunak dira (15).

Bestalde, etorkinen sektore garrantzitsu batek (hain zuzen ere, araupeko lana eskuratzeko zailtasunak direla-eta bazterketa ekonomiko eta sozial handiagoa pairatzen duenak) daukan eritasunerako tratamenduari dagozkion sendagaien gastuak ordaindu ahal izateko zailtasunak ere badauzka.

(14) Etorkinen Gizarteratzeari buruzko Legea. Zioen azalpena. 1996.

(15) Nafarroako Erriberako Plan Estrategikoaren zabalkuntza. Immigrazio Batzordea. Nafarroako Erriberarako EDER partzuergoa



Lehenago adierazi bezala, sasoikako lanen esparruan gero eta ezberdintasun txikiagoa dago itzulerako sasoikako langileen eta lan horiek egin ondoren aldi bateko lantokietatik hurbil dauden herrietan gelditzen direnen artean. Horregatik, etorkinen artean sortzen diren osasun-arloko beharrezan arloan, ezin da ia ezberdintasunik antzeman, batez ere bitartekoei dagokienez. Horrela, bada, osasun-laguntza osasun-sistema orokorrean jasotzea litzateke irizpiderik egokiena, behar adinako bitarteko egonkorrekin.

Tuterako Reina Sofía Ospitaleak 2001eko ekainean bertako larrialdi-zerbitzura jo zuten etorkinei buruz eginiko txostenak <sup>(16)</sup> osasun-arloko datu esanguratsuak eskaintzen ditu Tuterako eragin-eskualdeko etorkinen egoerari buruz; batez ere, etorkizun hurbilari begira bitartekoei buruzko irizpideak ezarri ahal izateko.

Larrialdi-zerbitzu horietan guztira trataturiko 3.325 kasuetatik, 198 atzerritarrenak ziren, eta batez besteko adina 26,4 urte ziren. Haiek Espainian aurretik emandako denbora 40 hilabete ingurukoa zen, eta, Nafarroan, bi urte. Trataturiko atzerritarren % 77,9k jadanik bazeukaten edo eskatua zeukaten norbanakoaren osasun txartela. Trataturiko kasuen % 60 baino gehiago Afrikako pertsonak izateak esanahi berezia dauka etorkin-kolektibo honen osasunari buruz, nahiz eta, ziur aski, ehuneko handi horrek zuzeneko zerikusia izan euren jatorrizko herrialdeetako osasun-laguntzaren mailarekin, nahiz eta Espainiara edo Nafarroara iritsi zirenetik denbora igaroa zen arren.

Tratatuetatik, Hego Amerikakoak guztizko kopuruaren % 40 inguru ziren, eta gizonezkoen eta emakumezkoen proportzioa oso antzekoa zen; Afrikakoaren artean, ordea, emakumezkoek ozta-ozta gaintzen zuten jatorriz herrialde horietakoak izanik tratatuak izan zirenen % 22.

Sasoikako langileen metaketa bereziki handiak dituzten herrietan (Mendabiako kasu aztertua, adibidez) gertatzen den egoeran ez bezala, aipaturiko larrialdi-zerbitzuetara ordu-tarte berberetan joan ohi dira biztanle guztiak.

Tuberkulosi-kasuek gora egin dutela antzeman da. Horren zergatia, nagusiki, prebentziorik eza eta gaur egungo nahiz iraganeko etxebizitza-baldintzak dira, oro har (baina, bereziki, sasoikako langileen kolektiboan).

Trataturiko atzerritarrek ospitaleratzea eragiten duten larrialdi guztien % 8 egiten dute, eta, 21

urteak 31ra bitarteko adinetan, populazio orokorraren % 7 egiten dute.

Sendagileek gaixoen jatorrizko herrietako eritasunei buruz gehiago jakin beharra behin eta berriro nabarmentzen da osasun-eritasun aldeak gaintzeko modu gisa, eta, halaber, administrazioen –udalak, gizarte-zerbitzuak...– eta etorkinaren arteko lehen harreman formaletan berariaz etorkinei zuzenduriko osasun-heziketako ekintzak egitea komeni da.

Azkenik, Nafarroan osasun-laguntza hedatu arren norbanakoaren osasun-txartela oraindik eskatu ez duten etorkinei buruzko datuak aintzat hartzekoak dira: % 19,2. % 17,1ek dio txartel hori tramitatzen ari dela. Taula berari jarraikiz, Gizarte Segurantzara kotizatzen dutenak etorkinen % 43,4 dira, eta gainerako % 20,4 osasun-laguntza unibertsalatuari atxikiak daude.

## ETXEBIZITZA

Txosten hau egitean, lana berrantolatu behar izan zen, etorkinen etxebizitza-egoerari buruzko datu berriak bildu ondoren. Jadanik orduan eza-gunak ziren egoeren larritasunak, udalen ekimen-ahalmenari buruzko azterketak eta nekazaritza-entresaburuek sasoikako langileen habitataren arloan dauzkaten betebeharrei zegokienez zeukaten jokabideari buruzko irizpenek “Etxebizitzarako Mahaia” deritzonaren deialdia egitea eragin zuten. Horren helburua zen immigrazioaren arloan diharduten erakundeen eta gizarte-ekimeneko entitateen ikuspegi ezberdinak erkatu eta sakontzea.

Esan dezagun, hasierako gogoeta gisa, etxebizitza etorkinen integrazioarako punta-puntako garrantzia duen faktorea dela, erosten nahiz alokatzen denean, zeren eta, lehenagoko beste migrazio-prozesu batzuetan ez bezala, Nafarroara iristen diren etorkin gehienek bertan gelditzeko asmoa baitute. Alabaina, une honetan etxebizitza da gure Komunitateko herrietan erroldaturik dauden etorkinen arazo nagusia, edozein dela ere euren administrazio-egoera. Arazoaren errealitateak eta Nafarroan gelditu nahi horrek berak etxebizitzari buruzko aurreikuspenak aldatzen dituzte, eskueran dauden etxebizitzaren urritasuna larritu egiten dute, eta arlo honetan berehala politika erasotzailea egiteko eskaera are irmoago egiten dute, honako hauen ondorioz:

- Etxebizitza erosi edo alokatzeak gaur egun duen kostu handia.

(16) Larrialdi-zerbitzu batean lagunduriko etorkinei buruzko azterlan deskriptiboa. Reina Sofía Ospitalea. Tuterako (Nafarroa). 2001eko ekaina. Egileak: Geno Ochando, Teresa Rubio, Esther Andrés, Javier Lucas, Olga Martorell, Ana Medina, Berta Murillo eta Mayte Tovar doktoreak.

- Eskaintza murrizta.
- Dagoen eskaeran jabe ugari egiten duten manipulazioa.
- Eskualde guztian hedaturiko giza egoera batzuen larritasuna; egoera horiek hain ugariak ez izateak ez die larritasunik kentzen.
- Udalek arazo honen aurrean era askotako jarrerak agertzea; dena den, oro har ez diote horri aurre egiten, euren eskumenak gainditzten dituela deritzotelako.
- Arazoak jabetu diren eta irtenbideak bilatzeari ekin nahi dioten udalen bitartekoen eta egiazko eskumenen maila.
- Foru Gobernuak etorkinei laguntzeko proposaturiko neurrietan parte hartu ahal izateko toki entitateek edo mankomunatuak dauzkaten zailtasunak. Neurri horiek bestelako erakunde batzuentzat ere izan daitezke, eta bazterketaren aurkako planean jasotako etxebizitzarako laguntza-planeko ekimenak dira.

Nafarroan modu iraunkorrean bizi diren etorkin gehien-gehienak etxebizitzetan bizi dira. Nekazaritza-arloko sasoikako langileak ez daude, inola ere, egoera horretan, tomate-sasoian eta uzta-bilketako garaian bederen; izan ere, haietatik gehienak sasi-etxebizitzetan, erdizka egokituriko lokalean eta ugazabek antolaturiko aterpe kolektiboetan bizitzen baitira, eta baita udalen ekimenez –Mendabiakoa kasu– instalaturiko gune edo kanpalekuren batean ere.

Nahiz eta NUPen inkestak azaro eta abenduko datuak eskaintzen dituen (garai horretan sasoikako langile oso gutxi egoten da), pertsonen bi kolektibo horiek etxebizitzari dagokionez bizi dituzten errealitateak elkarrekin kontrajartzea garrantzitsua da: sasoikako langileak, atzerriko aldi baterako etorkinak nahiz nazionalak, batetik, eta sasoikako lanak egin ditzaketan etorkinak, bestetik.

Bi kolektibo horiek parte-hartze nabaria izaten dute sasoikako lanetan, eta gero eta etorkin gehiago dago, legez kanpokoak izan nahiz ez izan. Etxebizitzari dagokionez batzuek eta besteek bizi duten errealitateari buruzko datuak elkarrekin horrela gurutzatzeak garrantzi berezia hartzen du sasoikako langileek gai honetan daukaten beharrianari aurre egitera bideraturiko politikak eta neurriak administrazioek, lanbide-erakundeek, sindikatuak eta udalek balioestean eta haien norainokoa erabakitzean. 2000ko nekazaritza-kanpainetan lorturiko datuen arabera, sasoikako langileen heren bat (nagusiki, Espainiako beste autonomi erkidegoetako nazionalak) enpresabu-

ruek alokatu edo emandako etxebizitzetan bizi ziren; eta heren batek baino gehiagok euren bitartekoak erabiltzen zituzten (sasi-etxebizitzak, karabanak, autoak...) eta bertan sarturik zeuden beste herrialde batzuetako edo Galiziako autonomi erkidegoaren hegoaldeko sasoikako etorkinak, Erribera eta inguruetakoko herrietan bildurik edo sakabanaturik.

Azkenik, sasoikako gainontzeko langileen etxebizitza-sistema askotarikoa zen, langile-multzo hori osatzen zuten kolektiboan arabera (gehienbat, etorkin arauzkotuak edo legez kanpokoak, etxeetan edo bestelako aterpe marjinaletan metatuak).

Egiaztaturiko kontua da kontraturiko eskulari nekazariak ez dizkiotela kontratuan ezarritako etxebizitza-beharrianak asetzen.

Oro har, etorkinen 100eko 35 ahaideekin bizi da, eta % 20,5 ahaideekin eta beste pertsona batzuekin. % 35,2 ahaide ez direnekin bizi dira, eta hori elementu bereizgarri bat da, proportzio handia delako eta etxebizitzak berak dituen baldintzei gehitzen dien zailtasunarengatik. Egoera horretan dauden inkestatuen erdiak ez du etxebizitza besterekin eduki nahi.

Etxebizitzak alokatzearen kostua handia da Erriberako herrietan, behar adinako etxebizitza-eskaintza ez egoteagatik ez ezik haien jabeek alokairua aprobetxatzeko moduagatik ere. Gobernuak erabakitako neurria, sasoikako langileei alokairuaren % 50eraino finantzatzekoa, nekazariak ia ez dute erabili ere, eta horiek daukate kopuru hori haien langileei ondoren ordaintzeko eginkizuna.

Pertsonalki familiarekin eta beste familiakoak ez diren beste pertsona batzuekin biltzearen edo familiakoak ez direnak biltzearen (kasuen ehuneko 55,7) arrazoiak agerian uzten ditu etxebizitza bat prezio ordaingarrian aurkitzeko zailtasuna; ez da nork bere borondatez eginiko aukera bat, bizileku finkorik ez izatearen edo etxebizitza-gastuak neurriak handienez aurrezteari nahiago izatearen ondoriozkoa.

Alkate batzuen aburuz, etorkinak elkarrekin taldekaturik bizitzeko aukera hau saihestezina da, etxebizitza-urritasunaren edo etxebizitzak eskuratzeko neurriak ezaren ondorioz. Etxebizitza lortu beharrenean eta jabetza edo alokairuaren kostu handiaren ondorioz, jarduera-eskema mafioso tipikoa daukan prozesu bat sortu da etxebizitzak erosi eta berralokatzeko. Kasu batzuetan, prozesu horretan parte hartzen duten etorkinen herrikideak dira. Udalek esaten dutenez, ez daukate baliabiderik prozesu horri aurre egiteko, ezta

etxebizitza horien bizigarritasun-baldintzei dagokienez ere (egiazko ghettoak dira). Egoera hori bereziki ondo ezagutzen dute sasoikako langile gehien jasotzen dituzten herrietan; haietan, bitarteko gisa dihardutenek etxebizitza eta lan-kontratuak kontrolatzen dituzte.

Tankera horretako hogeita kasu inguru antze-man dira Erriberan, bereziki Milagro, Azagra, Cabanillas eta Ribaforadan. Azkeneko bi herri horietan, kaltetuenak Bulgariako etorkinak dira.

Herriren batean, ohiko jokabidea da etorkinei etxebizitzarik ez alokatzea; horrela jokatzuz, herrian egon ez daitezten lortu nahi da, nahiz eta bertan egiten duten lan. Egoera hori, publikoki eta espresuki onartua, Erriberatik kanpoko beste herri batzuetan ere gertatzen da, eta horietan begi-bistakoa da udal-arduradun batzuen utzikeria. Horrela, bada, deigarri gertatzen da beste udal batzuetan (Azkoienen, adibidez) egiten den lana, jabeen eta maizterren artean bitarteko gisa jarduten baitute, alokairua errazteko eta etorkinek eskuratu dezaketean etxebizitzaren kalitatea hobetzeko.

Azkoiengo eskualdean, hain zuzen ere, kasu batzuetan errazagoa da etxebizitzak alokatzea, baina haien bizigarritasun-baldintzak ez dira onargarriak, ez baitaude ur bero, argi, berogailurik... kasu batzuetan, familia osoak lokalak alokatzea beharturik egoten dira, haietan bizi ahal izateko, errentan hartzeko etxebizitzarik eskueran ez egozteagatik.

Halaber, etxebizitzarik ezak higiezinaren agintzaren batek iruzur egitea ekarri du: horrela, 25.000 pezetarainoko ordainsaria aurretiaz eta kontraturik gabe jaso izan da errentan dauden etxebizitzaren telefonoak adierazteagatik (etxebizitza horiek, alabaina, jadanik errentan ez daudela esaten zaie etorkinei, azken horiek jabeen berri ematen dietenean), edo errentan eskaintzen diren etxebizitzak denbora-epe batean zehar bilatzeagatik (normalki, epe hori amaitutakoan ez da ezer aurkitzen, nahiz eta bezero den etorkinak alde aurretik emandako kopurua itzultzen ez den).

Bestalde, maiz asko Hiri Errentamenduen Legea ez da behar bezala aplikatzen; izan ere, higiezinaren agentziek legearen arabera bost urtera arte luza daitezkeen etxebizitza-alokatze kontratuak sinatzen dituzte etorkinekin, baina jabeek kontratu hori euren kabuz desegitea erabakitzen dute, eta, maizterrak ezetz baldin badio, Udaltzaingoak esku har dezala eskatuko dutela mehatxatzen dute. Ikuspegi honetatik, Atzeritarrei buruzko Legeak ezarritako murrizketa (hots, arauzkotu gabeko etorkinak doako justiziaren

eskubiderik ez dauka) ez da lagungarri suertatzen. Horren ondorioz, defentsa-gabezia bikoitza eragiten zaio.

Datu horiek behar bezain esanguratsuak dira, nahiz eta egoera askoz ere konplexuago batetik isolatuak izan diren itxura eman dezaketean. Dena den, horiek alde batera utzita, errealitateak alde handiak agertzen ditu bizigarritasun-zedula lortzeko eskaturiko baldintzei dagokienez. Zedula hori udal bakoitzaren zuhurtziaren, bere administrazio-ahalmenaren eta osasun-ikuskapenak egiteko daukan ahalmenaren arabera da. Ikuskapen-jarduera hori hutsaren hurrengoa da biztanleria urriko herri batzuetan, udalaren baliabide-erabakia sunarengatik eta ikuskapen horretatik eratorritako erabakiak –ikuskapen hori eginez gero– gauzatzeko ezintasunarengatik. Alabaina, salerosketarako etxebizitzarako dirulaguntza-sisteman parte hartzeari dagokionez (sistema hori bazterkeriaren aurkako planean aurreikusirik zegoen), jarrera positiboagoa da, gizarte-zerbitzuei buruzko kapitulan adierazi bezala.

Irizpen orokor gisa, esan behar da herritarren eskubideen defentsan oinarritzak dela bazterkeria-arriskuak desagerraraztea. Arrisku horiek etorkinentzako etxebizitzaren arazoaren esparruan nabarmen gertatzen dira, eta gizartean nahiz gizakiengan eragiten dituzten ondorioak kezagarriak dira batzuetan.

Bazterketa-arriskua murrizteari begira, oso garrantzitsua da herrialde hartzaileari iritsitakoan familiak berregitea, eta, hortik abiatuz, garrantzitsua da etorkinek aukera izatea elkarrekin bizi nahi duten familia-kideen bizikidetasuna ahalbidetzen duten etxebizitzak eskuratzeko. Iritzi orokorrak dio horretarako beharrezkoa dela jabetzarako bidea ematen duten araubide bereziko babes ofizialeko alokairu-etxebizitzaren eskaintza handitu eta sustatzea, parte-hartzea udalei eta oinarritzako gizarte-zerbitzuen mankomunitateei irekiz; gizarte-larrialdietarako etxebizitzak sortzea; babes ofizialaren onurak dauzkaten baina hutsik dauden etxebizitzaren poltsan administrazioak esku hartzea; gobernuak eta udalek elkarrekin batera esku hartzea lurzoru publikoa sortzeko; eta babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeari buruzko foru dekretua aldatzea, eskatzen diren baremoei dagokienez, araudia errealistakoa izan dadin eta etxebizitzak kolektiboarentzat eskuragarriagoak izan daitezkeen, haren baliabideak kontuan hartuz; eta, azkenik, alokairu-etxebizitza pribatu gehiago eskuratzeko laguntzea, alokairu bideraturiko pizgarri ekonomiko eta fiskalen bidez etxebizitza pribatu horien eskaintza sustatuz.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	